

Literatura eta mezenasgoa XVI eta XVII. mendeetako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren “Vuestra Merced”-en aitzakiaz

(16th and 17th century literature and patronage in the Peninsular Basque Country: some issues around Mikoleta’s “Vuestra Merced” (Your Grace))

Bijuesca Basterretxea, K. Josu
Deustuko Unib. Euskal Filologia Saila. Unibertsitateetako
Etorbidea, 24. 48007 Bilbo
josu.bijuesca@deusto.es

BIBLID [1137-4454 (2010), 25; 7-40]

Jaso: 2009.07.14
Onartu: 2010.09.22

Mikoletak “Vuestra Merced” delako bati zuzendu zion bere “Modo de la vizcayna poesia y sus versos” atala. Hartzaile horren aitzakiaz XVI eta XVII. mendeetako euskal literatura eta poesia penintsularrean eta mezenasgoaren arteko harremana arakatu da Bourdieuren irizpide metodologikoen gidaritzapean.

Giltza-Hitzak: XVI eta XVII. mendeetako euskal literatura penintsularra. Mezenasgoa. Literaturaren alorra. Boterearen alorra. Biolentzia sinbolikoa. Kondeszendentsia estrategía.

Micoleta dirigió a “Vuestra Merced” su capítulo “Modo de la vizcayna poesia y sus versos”. Con el pretexto de este destinatario, se analiza la relación entre la literatura y poesía vasca peninsular de los siglos XVI y XVII y el mecenazgo a la luz de los criterios metodológicos de Bourdieu.

Palabras Clave: Literatura vasca peninsular de los siglos XVI y XVII. Mecenazgo. Campo literario. Campo del poder. Violencia simbólica. Estrategía de condescendencia.

Micoleta adressa à “Vuestra Merced” son chapitre “Modo de la vizcayna poesia y sus versos”. En prenant comme prétexte ce destinataire, on analyse la relation entre la littérature et la poésie basque péninsulaire des XVI^{ème} et XVII^{ème} siècles et le mécénat à la lumière des critères méthodologiques de Bourdieu.

Mots-Clés : Littérature basque péninsulaire des XVI^{ème} et XVII^{ème} siècles. Mécénat. Champ littéraire. Champ du pouvoir. Violence symbolique. Stratégie de condescendance.

1. LITERATURAREN ETA POESIAREN BALIOA XVI ETA XVII. MENDEETAN

Mikoleetak 1653an dataturiko *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* lana aipagarria dugu arrazoi ugarirengatik, honakook besteak beste: euskararen lehenengotariko deskripzio bat eskaintzen duelako hiztegi eta guzti, Bilboko euskararen eredutzat jo den elkarrizketa bat biltzen duelako, edo garaiko poesiaren azalpen laburra eta poematxo bi ezagutzeko aukera eman digulako. Ikerketarako eta hausnarketarako hamaikatxo bidek du abiapuntu Mikoletaren lantxo. Gaurko honi dagokionez, berriro ere poesiari buruzko atalari jarriko dio arreta nire jakin-minak. Jakin-mina diot horixe baitakart gaur zuen aurrera: galdera ugari, erantzun gutxi. Hortaz, parkatuko didazue zuen alde aurretiko igurikimena aseko ez badituz, baina hori da eskaintzeko dudana. Erantzunak eskatzea galderak eta zalantzak baino ez dituenari, haltzari fruituak eskatzea da.

Edizioaz diharduen Jardunaldi honetan poesiari buruzko ataleko pasarte bati erreparatu nahi diot, azken aurreko parrafoari hain zuzen ere, zeinetan Mikoleta bere hartzaileari zuzentzen baitzaio. Zera dio pasarte horrek:

Estos dos son, como dixe, los dos géneros de poesía, para que si alguna vez fuere V[uestra]m[erced]. tentado de alguna locura poética en n[uest]ro. Idioma, no ygnore el estilo (Micoleta, 1653: 11).

Egia esateko, edizioaz den bezainbatean hartzaileari buruzko aipamenak ez du bat ere arazorik. Garaiko gaztelaniaz erabili ohi zen errespetuzko esapidea darabil hemen Mikoletak ere, *Vuestra merced*, hitz bakoitzaren inizialak laburdura gisa idatzirik ("Vm."). Zailagoa da, ordea, *Vuestra merced* horri dagokion erreferentea zehaztea. Mikoletaren pasarte hori ez dago fikziozko lan batean txertatua. Beraz, ez dugu arrazoirik pertsona deiktiko hori literatur lanetan ohizko den fiktibizazio prozesuaren eraginpean dagoela pentsatzeko. Zentzunezkoa dirudi benetako pertsona bati buruzko aipu baten aurrean gaudela ontzat ematea.

Edizioaren lagungarri den anotazio lanari dagokio era horretako arazoak argitzea. Gure asmoetatik urrun daude oso Indietako Kronikak, eta hala ere kronika horiek editatzean aurkitutako arazoak gureak ere badira, sarritan errealitate urrun eta ezezagunak aipatzen ditutezlako. Hona hemen Ignacio Arellanoren hausnarketa Indietako Kroniken edizio eta anotazioaz:

Pero si la fijación textual causa abundantes dificultades a los editores de las crónicas, la anotación no es menos problemática. He insistido en varias ocasiones en que es imposible disociar la ecdótica de la hermeneútica: no se puede fijar bien un texto sin entenderlo y no se puede entender si está mal fijado. La tarea de interpretación, materializada en el aparato de las notas explicativas, es la parte necesaria para el entendimiento de las crónicas de Indias (Arellano, 1999: 54).

Arellanok mintzagai duen errealitatea urrunekoa da bai espazioan eta bai denboran. Mikoletarena ezin hurrekoago dugu, Bilbokoa bertokoa baitzen, baina aspaldikoa, XVII. mendekoa. Deboraren dimentsio horretako urruntasuna da, hain zuzen ere, Arellanoren hausnarketa Mikoletaren ediziorako ere baliagarri bihurtzen duena.

Esan bezala, Mikoletaren pasarteak ez du ulermen arazorik sortzen edizioari dagokionez. Ulermenerako lagungarri litzateke, ordea, aspaldiko errealitate hori, bere izenez aipatzen ez den pertsona hori, nor den jakitea. Eta hala ere, arazo honek ere badu erantzun onargarririk. Jakina denez, Mikoletaren eskuizkribua, haren lanaren jatorrizko iturri bakarra, Londreseko British Library erakundearen ondare da egun, eta ez nolana, Mikoletak Samuel Sainthill izeneko artile saltzaile britaniar baten eskariz idatzi omen baitzuen, Dodgsonen argitu eta Zelaietak bildu bezala (Mikoleta, 1995: 7). Bilbon atzerriko merkatari ugari zebilela gogoan izateak hasierako harridura baretzen lagun dezake. Merkatari britaniar baten euskara ezagutzeko nahia asetzea izango luke helburu Bilboko apaizaren lanak.

Aspalditik dakigu, beraz, *Vuestra merced* hori nor zen, eta hala ere galderak ez dira amaitu. Deigarria da “*Modo de la vizcayna poesía y sus versos*” bezalako atal bat euskara ikasteko eskuliburutxo batean bildurik agertzea. Aurreko batean esan genuenez, gorago ikusi dugun “*locura poética*” horrek garaiko sormen poetikoari buruzko ildo garrantzitsuenetakoekin bat egiten du: alde batetik Marsilio Ficino garatu Errenazimenduko neoplatonismoarekin, Florentziako filosofo horren *furor poeticus* delakoaren baliokidetzat onartzen bada; eta beste batetik ildo berorren parodiarekin, alegia poetak erotzat jotzen zituen beste tradizio errotu batekin, Erasmorengandik hasi eta ia Mikoletaren garaiko arte poetikoetara doazen aipamenek erakusten digutenez (Bijuesca, 2008: 19). Izan ere, Mikoletak darabilen hizkuntzak zantzu barragarri agerikoak ditu, hartzaileri txantxetan zuzenduko baillitzaio.

Harry Sieberri esker badakigu ordea Mikoletarenak bezalako adierazpenak ohizkoak zirela babesle edo patroin baten bila ari ziren idazleen artean. Babespetza –behar bada *hegapetzea* esan beharko genuke, *hegapetu* aditza daukagunez gero adiera beronekin (Arejita, 2005: 376)– agintaritzaren erpinean ziren noblerik gorenek eta haien gainetiko erregeak eskaintzen zuten batez ere, eta idazleekin babesle-babespeko edo patroin-kliente harreman sendoak sortzen zituzten. Harreman horiek alde biezat ziren onuragarri, harremanaren erabilgarritasuna bera estali egiten bazen ere:

The relationship between writer and patron was based on an exchange of benefits: the author and his work profited from the prestige of a wealthy and powerful arbiter of good taste, and the patron enjoyed the propagation of his image as patron of the arts. The utilitarian nature of this exchange, always implicit in the rhetorical tropes of dedicatory prose, is often hidden [...]. Relationships between patrons and their dependents were often based on mutual interests among friends, on family connections, and on shared political, religious and economic goals. With frequency, courtiers, officials and writers served as go-betweens or brokers, arranging patronage transactions as well as pensions, court positions and honorific titles (Sieber, 1998: 87-88)¹.

1. Berrikiago Carlos Gutierrezek ideia bera garatu du, bai eta zehaztu zertan oinarritzen ziren aristokraten eta idazleen arteko harremanak, zer zen elkarri eskaintzeko zutena: “la prontitud de ingenio era, como se puede ver por este y otros ejemplos, un capital cultural muy estimable en la época para todo cortesano que aspirase al brillo social. Y quienes necesitaban brillar eran, ...

Erregimen zaharrean ohizkoa zen patroï eta idazleen arteko harreman mota hau are gehiago sendotu zen Felipe III.aren garaian, erregea bera bilakatu baitzen arteen babespetzarako iturri nagusia eta Lermako dukea haren pribatua "iturri zoragarri" horretatik ateratzen ziren onuren ubidea (Sieber, 1998: 95). Beraz, idazleek babespetza harremanak txantxa edota aipamen barragarri estaltzeko ahaleginak trikimailutat jotzen ziren, *On Kixote* nobela ospetsuaren bigarren partearen hasierako aprobazioan aitortzen zenez:

El día de hoy no se lisonjea a quien no tiene con qué cebar el pico del adulator que, aunque afectuosa y falsamente dice de burlas, pretende ser remunerado de veras (Cervantes, 1980: 569; Sieber, 1998: 85).

Ikusi berri dugu Mikoleta ere txantxetan zuzentzen zitziola bere hartzaileari. Sieberrek gogora araziriko Cervantesen hausnarketaren argitara, Mikoletaren eta "Vm." haren arteko harremanak zein eratakoak ziren galdetu beharrean gaude, eta erantzun zehatzik ez badugu ere, bi direla aukera nagusiak begitantzen zaigu: Mikoletak eskaintzetan ohizkoa zen hizkera mota erabiltzen du, nahiz eta beraren hartzailea Gaztelako noblezia goreneko kide ez izan; ala bere lana, edo behintzat "Modo breve de la vizcayna poesia y sus versos" atala, lehenagotik idatzia eta besteren bati eskainia zen.

Eta berehala beste galdera bat ere sortzen da, alegia: artearen eta literaturaren babespetzak horrenbesteko garrantzia zeukan gizarte eraketa batean, badago modernitate goiztiarreko euskal literaturaren eta babespetzaren arteko harremanik? Euskal herri penintsularraz den bezainbatean, bagenekien egon zeudela euskal idazleak hemen ere, eta bereziki poetak, Ibon Sarasolak "poesía galante vizcaína" izendatu lan multzoak adierazten digunez. Mikoletak bildutako poematxo biak ere multzo horretan txertatzeko modukoak lirateke. Hor dira beste lan poetiko aipagarri batzuk ere: Iruñean 1609 eta 1610eko Corpus eguneko ospakizunetarako sorturikoak, Iruñean bertan 1666an Alesonek Felipe IV.aren heriotzan idatzirikoa, Martin de Iturbek 1658an Salamancan ondua Felipe Prospero printzearen jaiotza zela-eta antolatutako ospakizunen artean, Juan Bautista Alzola y Muncharazek Domingo Hegiaren

...

principalmente, quienes esperaban ascender en la escala social por medio del mérito cultural. No es casual que algunos de los escritores que reseñamos fueran nobles de los escalones más bajos o hidalgos como Quevedo, Hurtado de Mendoza, Juan Antonio de Vera o Góngora que se apoyaron en su ingenio o en su capital literario para entrar al servicio de un aristócrata o situarse cerca del entramado monárquico-institucional cortesano. El objetivo último era obtener mercedes y prestigio otorgados por aquellos a quienes se servía. Lo que podía obtenerse de estos variaba: hábitos de órdenes militares [...]; cargos honoríficos (ujier, paje, caballero de la reina, etc.) y administrativos (secretarios, contadores); compensaciones en metálico [...] o en especie (cadenas, guantes) y hasta facilitación o pago de trámites y costes editoriales. [...] Los escritores se convertían a menudo, en virtud de su condición de secretarios, en mediadores y filtros políticos (Quevedo), sentimentales (Lope), literarios (los Argensola), administrativos (Góngora) o burocráticos (Antonio Hurtado de Mendoza) entre los señores a quienes servían y la corte; también, en ocasiones, entre los grandes y aquellos que deseaban alcanzar su favor o ponerse a su servicio" (Gutiérrez, 2005: 125-126).

gorazarrez asmatua Hondarribia defendatzeagatik 1638an, eta 1686ko "Bertso bizkaitarrak", besteak beste². Gainera, Joan Perez de Lazarragaren eskuizkribua agertu zenetik, genekien hori indarberrituta azaltzen zaigu. Lekuko horiek guztiek eta beste batzuek zalantza izpirik gabe erakusten digute bazela XVI eta XVII. mendeetan euskaraz idatzitako literatura edo poesiari (garaian erabiliko luketen hitz bera nahiago bada) gaztelaniaz idazten zuen zenbait idazle garaikidek sinestarazi nahi zirela kontra.

Izan ere, literatur topikoa zen Gaztela poetaz gainezka zegoela eta poetaz hutsik zirela inguruko herrialdeak, Galizia esate baterako, eta batez ere Euskal Herria. Alonso Jerónimo de Salas Barbadillok ematen digu esandakoaren adierazpenik eredugarrietariko bat *La hija de Celestina* nobelaren hasieran, testuinguru barragarri batean. Elena, Celestinaren alaba, etorri handiko bezain gezurzalea da, eta haren sormen gaitasuna poeten artean banatzeko adinakoa dela dio narratzaileak:

Bastara muy bien a dar provisión desta mercadería, quedándole la casa llena a todos los Poetas de Castilla, con haber tantos que se pudiesen hacer a sus tiempos sacas dellos para Vizcaya, atento a ser tierra que no los lleva, y que para tenellos es fuerza que los trayga de fuera del Reino (Salas Barbadillo, 1612: 2 aur.).

Idazle berorrek badu beste aipamen bat *Coronas del Parnaso* lanean euskaldunen gaitasun ezaz poesiarako, nahiz eta marinel-lanbiderako trebeek direla aitortzen dien, Herrero García-k bildu eta iruzkinduriko pasarte honetan:

La literatura anduvo muy parca en hablar de esta aptitud [para la marinería]. Sin embargo, Salas Barbadillo no se la dejó en el tintero, pues describiendo una armada que los malos poetas hicieron contra el reino de Apolo, menciona esta cualidad de los de Vizcaya, como puede verse:

No les pareció a los versificantes manchegos y vizcaínos que se podía hacer esta empresa sin ellos. Los manchegos trujeron de aquella tierra gruesa y fértil mucho bastimento para la armada. Los vizcaínos se ofrecieron para labralla, y después rejilla, como los que son eminentísimos marineros.

Nótese que no es ningún elogio el que tributa a los vizcaínos, asociándolos con los brutales manchegos para combatir al dios de la poesía (Herrero García, 1966: 271).

Cervantes eta Lope de Vega bezalako idazle are konsagratuagoek iritzi beretsuak adierazi zituzten euskaldunen poesiarako gaitasun ezaz. Azkenak zera esan arazi zion hain ohizko ziren *vizcaino* estereotipatu barragarri horietako bati Ama Birginaren Kontzeptzioaren eguna ospatzen duen *Coloquio pastoril* batean:

2. Orain arte aipatutakoei Euskal Herri penintsularreko herri eta hirietan XVI eta XVII. mendeetan izandako zenbait poeta eta idazleren berriak ere gehitu behar zaizkie (ikus Urkizu, 2000: 125-193). Gainera, 1989 arte aurkituriko euskal testu zaharren berri bibliografiko zehatza ere badugu (Lakarra, 1990: 357-362).

Navío que agora labras / para andar en la carrera, / Concepción pones en popa, / también pones en banderas / [...] / que juras a Dios que es buenas / y muy buenas poesías / que le cantas en vascuencas (ikus Azurmendi, 2000: 301-302).

Salas Barbadillok bezala, Lopek trebatasun bi uztartu ditu: untzigintzarena eta poesigintzarena. Untzigintzan euskaldunak ezin katolikoago agiri dira untziari berari ere Kontzeptzio izena emanez. Eta horrekin batera “muy buenas poesías” kantatzen dizkiote Kontzeptzioari. Hori dioen euskaldunaren hizkerak, ostera, zalantza izpirik gabe salatzen du idazlearen asmo parodikoa, eta beraz poesiaren ondasunaz egindako aldarrikapenaren zentzugabekeria. *Vizcaino* horrek esandakoa Parnasoko jainkoari egindako erasoaldi zuzena da. Ondorioa ezin argiagoa da oraingoan ere: untzigintzan trebe bezain baldar dira euskaldunak poesiagintzan.

Cervantes Sancho de Azpeitia pertsonaia ezagunaren sortzailea dugu. *On Kixoteren* bigarren partean, dena den, bada poesiari buruzko pasarte luze bat, nahikoa ezaguna hori ere. Diego de Miranda soingaineko berdedunaren zalduna kezkatuta dago bere semea poesiazale amorratua bihurtu delako Salamancan ikasten emandako urteetan, zuzenbide edo teologiako ikasketak baztertzeraino. Eta hori gutxi balitz, gogoko duen poesia klasikoa da, grekoz eta latinez idatzia. Mirandaren kezka entzun ondoren, *On Kixotek* poesiaren defentsa-hitzaldi luze baterako aitzakia ezin hobea du. Mantxako zaldunaren iritzian bere jiteak eskatzen dion zientziari jarraitzen utzi behar zaio semeari, eta poesia bada zientzia hori, ez zaio hortik kalterik etorriko: “aunque la [ciencia] de la poesía es menos útil que deleitable, no es de aquellas que suelen deshonrar a quien las posee” (Cervantes, 1980: 694). Dena den, erromantzez egindako poesia hobesten du Manchako zaldunak, Homerok, Virgiliok eta antzinateko beste poetek ere zeinek bere hizkuntzan idatzi zituzten bezala euren lanak:

Y siendo esto así, razón sería se estendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se desestimase el poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aún el vizcaíno, que escribe en la suya (Cervantes, 1980: 695).

“Ni aun el vizcaíno” horrek zer esan ugari eman du. Ohizko interpreta-zioaren kontra Apraizek, Cervantes “vascófilo” zela frogatu nahirik, benetan euskarazko poesia egitearen alde azaldu zela uste du:

Y no sirve que algún malicioso pretenda que el adverbio *aun* implica en este pasaje mera conmiseración, pues presupuesto que aun siendo así todavía teníamos algo que agradecerle al novelista dado el atraso en que a la sazón se hallaba la filología, lo que representa esta partícula lisa y llanamente es que en aquel entonces se desconocía la literatura euskara, sin que nadie reconociese tampoco las dotes literarias de la lengua ibérica, y Cervantes enfrente de todos las admitía, y encontraba muy natural que hubiese una literatura *vizcaína* (Apraiz, 2005: 161-162).

Apraizek gogoan hartu behar luke, ordea, gaztelaniazko literaturak bazuela nork balioetsi, euskarazkoak ez bezala, Cervantesek berak *On Kixoteren* hitzaldi berean aitortzen duenez:

[...] cuando los reyes y príncipes veen la milagrosa ciencia de la poesía en sujetos prudentes, virtuosos y graves, los honran, los estiman y los enriquecen, y aun los coronan con las hojas del árbol a quien no ofende el rayo (Cervantes 1980: 696).

Apoloren ereinotzaz alegia, eta ereinotzaz egindako koroa jasotzea poeta batek espero zezakeen konsagrazio ekitaldi gorena zen. Euskal idazleek ez bezala, gaztelaniazkoek bazituzten konsagraziorako baliabideak. Apraizek onartu nahi ez badu ere, Cervantesen hitzek adierazten dutena “mera conmi-seración” baino ez da.

Salas Barbadillo uneren batean Lemoseko kondearen babespekoa izan zen, alegia, gaztelaniazko idazleen patroï garrantzitsuenetariko baten babespekoa, eta halan izan ziren euren bizitzetako momenturen batean Cervantes, Lope de Vega eta Luis Vélez de Guevara ere, denak euskaldun barragarri gisako pertsonaiak euren narrazio edota antzerki lanetan sartu zituztenak. Eta hala ere Echavek Lemosekoari eskaini zion Mexikon idatzi zuen lan apologetikoa, beherago ikusiko dugun bezala.

Dirudienez, euskaldunen poesiarako gaitasuna eztabaidarako gai bihurtua zen XVI. mendetik behintzat. Lehia horren ohiartzunak alde bietatik entzun daitezke. Euskaldunen aldetik, Iburguen Cachopin kronikan Kantabria izenari eman zaion etimologian eztabaida horren zantzuak daudela ematen du. Kronikagileon esanetan Kantabria “patria e región de cantares” omen zen (Azurmendi, 2000: 371 eta 445; Arriolagengoa, 2008: 84)³. Hala ere, iritzi horrek bazuen bere ordaina Gaztelan, esate baterako Correasek bilduriko atsotitzaren bitartez: “No lo estimo en un cantar vizcaíno; en la coplas de Calaínos” (Legarda, 1953: 140), zerbait baliogabekotzat jo nahi zenean erabilitako errefracua hain zuzen ere⁴.

Poesiari buruzko ideia horiek behar bezala ulertzeko poesiaren beraren gizarte balioaz ohartzea nahitaezkoa dugu. XVII. mendeko gizartea gorteko gizartea da, gortearen inguruan egituratua. Eta gizarte horretan ostentazioak berebiziko garrantzia du, norbanakoak gizartean duen tokia erakusten baitu. Poesia bera ere ostentazio baliabide dute maila goreneko aitoren semeek. Horrexegatik poetez inguratuta erakutsiko dituzte euren buruak jendearen aurrean, zalpurdiz

3. Ez dut aurkitu Garibayrengan etimologia hori, baina litekeena da jatorria arrasatearrak *Compendio historialean* ematen dituen ideietan izatea. 1.4.7.ko pasarte batean hala azaltzen du Cantabria hitzaren etimologia: “En caso que Cantabria sea población del Rey Idubeda, no lo era del nombre de su hijo Brigo, [...] sino de algun otro hijo suyo, o persona principal de su compañía, que se debia llamar Canto [...]” (Garibay, 1628: 82). Gainera, kantabroen ohitura berezien artean kantatzea omen zegoen erromatarrek gurutzera jozten ziztuztenean, 1.6.27.ren arabera (Garibay, 1628: 176). Ideia horietatik Iburguen Cachopin kronikako azalpena jauzi labur bat baino ez dago. Esan gabe doa, bidenabar, euskaldunen kantuzaletasuna vascocantabrismoari loturik agertuko dela, teoria horren frogetariko bat bailitzan. Eskuarrean dugun gaiaz ohar, hausnarketa eta aipu gogoangarri ugari aurkituko ditu irakurleak Azurmendiren *Españolak eta euskaldunak* liburuan.

4. Errefracua Correasen aurreko bildumetan ere ageri da, XVI. mendearen erdialdean hasita, eta lehentxoago ere *Lisandro y Roselia* (1542) izeneko tragikomedian (Iglesias, 1984: 34).

edota jazteko dotorez erakusten dituzten bezala. Hortaz, dirudiena baino balio handiagoa du poesiak gizarte horretan, ez balio ekonomikoz zuzena duelako, baizik eta balio sinboliko eta kultural jasoa aitortzen zaiolako. Hala azaltzen du poesiak gorteko gizartearen duen garrantzia Carlos M. Gutierrezek:

La fuerte carga simbólica de la literatura me parece fuera de toda duda, así como su condición de capital cultural simbólico percibido por agentes sociales que no sólo la conocían sino que también la reconocían (la “distinguían”), confiriéndole valor (Bourdieu, *Razones [prácticas]* 2007:) 108). El valor que se le pudiera dar a la literatura en una época tan literaturizada como aquella no puede ser minusvalorado. Baste recordar que gran parte de los mitos, personajes y géneros literarios característicos de la literatura española son de esta época [...]. Y eso sin olvidar reiteradas prácticas sociales, como las academias, o el auge y alcance de la producción editorial, factores que reflejan el eco e importancia de la práctica literaria. [...] Difícil sería también contextualizar la visita que le hizo Felipe IV a la Academia de Madrid, en la primavera de 1622, si un desempeño tan antieconómico como la poesía no tuviera un correlato simbólico en el marco de la cultura cortesana (Gutierrez, 2005: 54)⁵.

Poesiari eta literaturari atxikitako balioagatik idazleak ugaritu egin ziren eta horrek berak azalduko luke Gutierrezen ustez alor literario espainiarraren sorrera. Gortearen egoitza Madrilan izanik, hiri horrek erakarri zituen idazlerik gehienak, hara bildu baitziren babesle onuragarriak aurkitzeko aukerak. Gainera, poesiaren kapital sinbolikoa denborarekin beste era batzuetako kapitala bilakatzen modukoa zen: gizarte kapitala (orden militar baten lorpena, besteak beste) edo kapital ekonomikoa (behin betiko lanaren lorpena, erregearen zerbitzari edo idazkari gisa esate baterako). Gaztelaniaz literatura eta poesia idazten zuenak bazeukan bere lana balioetsia izateko aukerarik, bai eta arrakasta lortzerik ere. Horrexegatik ziurrenik gaztelaniaz idatzirik ospea lortu nahi zuen euskaldunik ez zen falta. Horren lekuko goiztiar dugu Garibay arrasatearra, historiaren generoari dagokionez behintzat. Idazleak bilatu ohi zuten mesederik estimatuenetarikoa errege kronista izatea zen. Lope de Vegak, esate baterako, egin ahalak egin zituen izendapena lortzeko, baina alperrik (Gutierrez, 2005: 133-135). Garibayren ahaleginek, ostera, uzta gozoagoa ekarri zioten arrasatearrari, bitartean garraztasunik ezagutu behar izan bazuen ere.

2. XVI. MENDEA: GARIBAYREN EREDUA

Jesus Moyaren iritzian Garibayk *Compendio historial* lehen lan argitaratua errege-kronista bihurtzeko helburuarekin sortu zuen (“no por platónico amor a la Verdad sino por hacerse un nombre al servicio de la Corona y agenciarse

5. Gutierrezek berak ideia bera azpimarratu du bere liburuaren beste pasarte batzuetan: “Tiene sentido que, en una época en la que la literatura en general y la poesía en particular gozaban de tanto reconocimiento, se produjera una escena como la que narra Quevedo en una carta que le dirige al duque de Osuna el 21 de noviembre de 1615. Al hacer relación de los festejos celebrados en Burgos con motivo de la boda real franco-española y glosando los cortejos nobiliarios escribe don Francisco: “El duque de Maqueda vino con mucha gente y muy lucido acompañando a su excelencia, mas no trujo poeta, cosa que se notó” (*Epistolario* 24). [...] lo adjuntado aquí es botón de muestra del valor simbólico y de ostentación que se le otorgaba a la poesía entre el estamento nobiliario de comienzos del XVII” (Gutierrez, 2005: 17).

un empleo como cronista”, Moya, 2000: 55). Lana erregeari berari eskaini nahi izan zion baina Felipe II.ak uko egin zion Garibayren eskaintzari, bai eta arrasatearrak argitalpenerako eskatutako diru laguntza emateari. Hala ere, Garibayk bere lanaren hitzaurrea (“Prologo al catholico y potentissimo monarca”) erregeari zuzentzea erabaki zuen (“[la dedicatoria] la transmuta en lección magistral, dirigida al propio rey [...] sobre cómo leer su propia Historia de España”), baita Plantinoren irarkola ospetsuan inprimatzea ere, behar bada Madrilen argitalpenerako baimen eske zegoela Arias Montanoren Biblia Poliglota ere Anberesen argitaratu behar zela jakin zuenean (“El de Mondragón lo tiene claro: imprimir para impresionar, y en casa de Plantin”, Moya, 2000: 55-56). Laster sortuko zitzaion Garibayri bere lana doan argitaratzeko aukera bat, Cristobal de Rojas y Sandoval Cordobako apezpikua prest agertu baitzen diruz eta baliabidez babesteko argitalpena Garibayk berari eskaini nahi ziola adierazi zionean⁶. Cristobal de Rojas y Sandoval Deniako markesaren sasiko zen, Dominga de Alzaga Hondarribiarrarekin izandako harremanetik jaioa, Deniakoa Gipuzkoako mugara etorri zenean Fernando Katolikoaren aginduz. Hondarribian jaioa eta hazia izanik, apezpikuak abegi ona egiten zien Gipuzkoarrei, eta Garibayri ere erraztasun guztiak eskaini zizkion bere argitalpen-egitasmoa gauzatzeko, baina alperrik:

Este notable prelado holgo mucho de verla y de entender su varia lectura, y no menos que se le dirigiesen sus grandes trabajos, y quisiera mucho que la impresion se hiziera en esta ciudad [de Córdoba], viendola él mesmo por mayor gusto suyo, por la gran aficion que tubo siempre a los profesores de todo genero de letras y estudios, // (94 v.) y se ofrecio de traer a ella impresores y de buscar buen papel, pero como yo tenia fixado en mi animo de hazer esto en Flandes yendo alla en persona mediante la dicha licencia, no vine en ello (Garibay, 2000: 309).

Arrasatearrak, argitalpenaren finantziazio arazoak aurreikusirik, Gipuzkoako Biltzarrari diru-laguntza eskatu zion baina berriro ere ezezkoa izan zuen erantzuna (Moya, 2000: 59). Inprimatze lanak hasita, agerikoa egin zenean zeukana baino diru kopuru askoz handiagoa behar zuela, Flandesen bizi zen Juan de Isunza merkatarri gasteiztarrari mailegua eskatu zion, bai eta lortu ere, etorkizuneko buruhauste eta estutasun ugariren hasiera orduantxe sortu zela ohartu gabe. Garibayk Isunzaz iritzi ezin hobea zeukan artean. Gasteizko hiria mintzagai duela, hona hemen Isunzari zuzenduriko laudorioa:

Desta ciudad es vezino y natural el discreto varon Ivã de Ysunça, proueedor General de su Magestad de las galeras de España, persona de rara virtud, tan aficionado, no solo en particular a los profesores de los buenos estudios, mas aun a otros qualesquiera, que en sus artes tienen pericia, que con justas causas

6. Rojas Apezpikuari zuzenduriko eskaintza desagertu egin zen erabili ahal izan dugun bigarren edizioan, Sebastian Cormellas inpresoreak eskaintza berri bat jarri baitzuen jatorrizkoaren ordez (“Al doctor Monserrate Ramón, y del Consejo de su Magestad, en el principado de Cataluña”). Dena den, Rojas y Sandoval oraindik aipatua dago bigarren edizio honetan ere, hitzaurrean: “Hize su dirección al venerable Arçobispo de Sevilla”. Garibayk Cordoban 1567ko irailean bisitatu zuenetik *Compendio historial*aren hitzaurrea datatu zuen arte 1570eko urtarrilaren 1ean Rojas y Sandoval Sevillako artzapezkiku izendatu zuten.

merece ser anumerado entros los verdaderos Mecenates. En lo que a esta obra [*Compendio historial*] toca, puedo realmente decir, aver mostrado grande calor con mucha aficion, que salga a luz para comun vtilidad de las gentes (Garibay, 1628 2: 460).

Isunza, ordea, ez zen Garibayk nahi zukeen mezenas eskuzabala, merkataritari leinu boteretsu bateko kide baizik, eta hala jokatu zuen, Plantinoren etxean argitaratzeko ametsa izan zuen historialariari egindako mailegua sekula ahaztu edo parkatu gabe⁷. Isunzaren zorrari aurre egin ezinik eta diruz hustuta urte luzeetan, Garibayk zenbait ondasunen bahidura eta gartzelaldi labur bat pairatu zituen. Egoeraren ahulak are gehiago bultzatu zuen historialaria erregearen mesedea lortzen. Bidaia ugari egin zituen tokian tokiko handikiei bere lan argitaratua erakusteko eta batez ere eskuartearen zeukan egitasmo genealogikoaren berri emateko eta bide batez egitasmo horretarako datuak eta iturriak lortzeko. Leinuarekiko kezka obsesioa izanik garaian, arrasatearraren genealogia lan berria Gaztelako handikien arreta eta babesa erakartzen hasi zen. Gainera, edonora zihoala ere, beti idazkari, eskribau eta administrazio langile euskaldun ugariak bilatzen zituen (Caro Baroja, 2002: 120) harik eta halako batean Idiaquez baten babesa lortu zuen arte Gipuzkoako Biltzarraren aginduz Probintziaren interesak gortean kudea zitzaizkien. Nahitaezkoa zen gorteko Idiaquez leinukoekin topo egitea eta, euren artean, Juanekin ("principal valedor de Garibay cerca de Felipe II" Caro Barojak dioenez). Juan de Idiaquezen bitartekaritza erabakiorra bilakatu zuen historialariaren helburua lortzeko, Idiaquez bera jabetu baitzen Garibayren genealogia lana erabilgarri izan zitekeela erregeak Frantziako tronurako zituen asmoetarako:

Juan de Idiaquez examinó el trabajo genealógico de Garibay y, sin duda, consideró que era importante para defender ciertos intereses de Felipe II. [...] Sin duda, durante el reinado de Enrique II de Francia, Felipe II tuvo ya alguna ilusión respecto a la posibilidad de heredar a aquel hombre raro y sin sucesión o de que, por lo menos, le heredara alguno de sus vástagos. Sus consejeros hubieron de estar atentos a esta idea y los trabajos de Garibay, enderezados a demostrar que su idolatrado monarca descendía de Carlomagno (al que consideraba incluido en el santoral) y del más que sospechoso «Pharamond», tuvieron valor político. Así, de la coyuntura sacó, en fin, más provecho que de todas las especulaciones restantes de su vida. El título tantas veces solicitado y denegado de cronista, le llegó [...] (Caro Baroja, 2002: 124-125)⁸.

Hasieratik Diego de Espinosa, Juan de Carvajal eta Benito Arias Montano bezalako elizgizon eta gortesauak izendapenaren aldeko izan zituen (García Oro eta Portela, 1999: 123-124), baina Idiaquezen babesa soilik gertatu zen baliagarri, beronek jakin izan baitzuen uztartzen Garibayk eta Felipe II.ak elkarrengandik bilatzen zutena: arrasatearrak errege kronista izendapena eta erregeak Frantziako tronurako pretentsioen aldeko propaganda.

7. Garibayk Isunzarekin bizi izandako gorabeheretarako ikus, besteak beste, Caro Baroja, 2002: 100-102; Moya, 2000: 63-64; Otazu eta Diaz de Durana, 2008: 149-150; eta Garibay, 2000: 375, 38. oh. Moyak "Pedro de Isunza" diotenean Juan de Isunza esan nahi duelakoan gaude.

8. Errege kronista izendapena lortzeko ahalegin neketsuen historiaz ikus Caro Baroja, 2002: 125-126.

Gogoan izan beharrekoa da ordurako Garibayk lortua zuela erregearen-gandik urteroko 80.000 maraiko pentsioa, baina hala ere ez zion utzi kronista titulua eskatzeari, izendapenarekin zetorren ordainsariari uko egiteko prest zegoela izendapenak berak ekarriko zizkion ospea eta arrakasta editoriala sari nahikotzat zituelako: (“sin salario [...] porque sólo lo pretende para sacar con más autoridad a la luz sus obras”, Garibay, 2000: 447, 9. oh.). Hala azaldu du Carlos Gutierrezek garaiko idazleen irrikia gorteko izendapen eta karguak lortzeko:

El caso de Garibay ilustra cómo el campo cultural (escritores, historiadores, humanistas) comienza a percibir los cargos palaciegos no sólo como prestigioso reconocimiento cortesano sino también como parte fundamental de la imagen pública. Dicha imagen tenía claras implicaciones editoriales y simbólicas ya que la autoridad que confería un cargo de designación real como el de cronista favorecía el éxito en el creciente mercado del libro y, de paso, otorgaba cierta jerarquía dentro del campo literario-cultural (Gutierrez, 2005: 133)⁹.

Errege kronista izendapena lortu ondoren ezer gutxi egin zuela *crónica general*, Gaztelako erregeen historia alegia, Ambrosio de Morales aurreko kronistak utzi zuen puntutik garatzeko ikusita, Garibay dezepzioa gertatu zela epaitu du Kaganek berriki (“Garibay too proved a disappointment”). Hala ere, Kaganek berak erakutsi du errege kronista gorteko zeregin eta premiei zor zitzaiela batik bat (“the royal chronicler was therefore a court official first and a historian second”, Kagan, 1995: 78 eta 76, hurrenez hurren). Alde horretatik, Felipe II.aren gogoia betetzeko jarrera eta gaitasuna erakutsi zituen Garibayk, eta horrexek berak ekarri zion garai hartan horren estimatua zen erregearekiko hurbiltasuna, arrakasta alegia.

Boterearen alorraren eta alor literario-kulturalaren arteko harremanetan ohizkoa zen idazleek eta agintariak elkarren laguntza bilatzea lehenengoak euren propaganda diskurtsoak sortzeko trebetasuna bigarrenen mesedetan jartzeko prest zirela, horren ordainetan diru sarrerak edo mesedek eta ospea lortuko zituztelakoan. Gortearen eremuan bereizi izan diren propaganda moten artean (“personal-familiar, religiosa, corográfica y política”, Gutierrezen iritzian), Garibayren jarduera genealogikoak pertsona-familia-
ren propagandari dagokio, kutsu politiko zoliarekin bada ere Felipe II.ak Frantziako tronua alde omen zituen eskubideak frogatzearren eraturako lanei dagokienez.

Inoren interesen aldeko propaganda idatzi ez ezik, bere buruaren alde ere idazteari ekin zion Garibayk, batez ere bere leinuaz eta bizitzaz diharduten *Los siete libros de la progenie y parentela de los hijos de Estevan de Garibay* luzaro argitaratu gabeetan¹⁰. Leinuaren memoria zaintzea eta

9. Gutierrezek “Juan” izena egozten dion arren historialariari, garaiko folkloreko eta literaturako pertsonaia bera balitz bezala, ez dago zalantzarik Estebanez diharduela.

10. XIX. mendean argitaratu zuen lehen aldiz Pascual Gayangosek (Garibay, 1854). Berriki Jesus Moyak (Garibay, 1999) eta Jose Angel Achonek (Garibay, 2000) argitaratu dute. Aipua azken horretatik jaso dira.

semeeek (baina ez alabek!) horren berri izan dezaten aitortzen du idatzi horren lehen helburu gisa:

[...] hazer a mis hijos Luis de Garibay y Estevan Feliz de Garibay [...] un breve discurso de sus progenitores por ambas líneas masculina y femenina, considerando los inconvenientes que se pueden seguir de no hazer y ordenarles esto con tiempo.

Aurrekoari bigarren helburua gehitzen dio Garibay gortesauak, ziur asko semeei bera bezain gortesau-burokrata arrakastatsu izateko bidea errazteko asmoz, nahiz eta onartzen duen bide neketsua eta arriskuz beterikoa dela, gortesauen bizimoduaren berriemaileek baieztatzen zutenez (Sieber, 1998: 92-94). Garibay semeek aita bera dute oztopoak gainditu eta gizarte aristokratiko-gortesauaren mailetan gora egiteko trebetasun bereziak garatzen jakin izan dituenaren eredu ezin hobea:

Escribiré a lo último un discurso de mi vida por sus debidos tiempos y años para que mis hijos leyéndole alguna vez se esfuerçen a oponerse [dedicarse] con mayor ánimo a los estudios, cuya vida deseo profesen, y no se cansen por ningunos trabajos en ellos, viendo los muchos que a su padre costaron, pues esta vida breve de los hombres llena de miserias y desgustos ha de ser continua batalla sobre la tierra, segun el capitulo 7 de Job [Job 7: 1] (Garibay, 2000: 149-150).

Honetan ere Arrasateko historialaria garaiko gizona dugu. Eta garaian ez zen ezohizkoa genealogiak manipulatzeari leinuaren jatorria edertzeko asmoz gizarte mailaketan gora egin nahi bazen erregearen mesedea eskatuta:

En la época, sobre todo entre segundones o miembros de la baja nobleza, se hicieron comunes las invenciones y falsificaciones genealógicas. El motivo de tales supercherías fue el anhelo de ascensión social fundado en la petición de mercedes reales. El mecanismo cortesano establecía una correlación entre los servicios prestados a la corona, cuyo cobro se solía transmitir generacionalmente, y las mercedes que, se creía, devengaban tales servicios (Gutierrez, 2005: 152).

Garibayk erregeari eskainitako zerbitzuen onuradunak semeak izango baziren, leinuaren ospea lagungarri izango zuten. Ezin esan daiteke Garibayk bere jatorriaz atondutako genealogia asmakizun hutsa dela, baina manipulazioak ez dira falta, eta Luisa de Montoya bigarren emaztearen jatorri garbia frogatzeko kezka bizia ere nabari zaio genealogistari (Garibay, 2000: 118, 10. oh.). Aginagaldek agerian utzi du Garibayren xedea bere jatorria edertzea dela leinu ospetsu batek dakartzan abantailen jakitun:

Con su método de trabajo, ¿acaso Garibay no desea mostrarnos algo que, en realidad, él mejor que nadie, sabe que no es? Y me explico. Ni la familia de Mondragón tronca con el Solar de Parientes Mayores de Garibay (cuya genealogía, por cierto, es bastante deficiente), ni su rama de los Garibay de Mondragón forman parte de la élite local. No lo hacen por las rentas, pero tampoco por las relaciones familiares. ¿La genealogía le sirve a Garibay para dar a entender que es así? ¿Es un atisbo de 'snobismo' de cortesano? Probablemente (Garibay, 2000: 72).

Genealogia alde batera utzita eta errefrauak direnaz bezainbatean, litekeena da Garibayren bildumak azken batean erregearen gustua asetzeko sortuak izatea. Bere semearen garaiko idazleek “poesiaren etsai” gisa gogoratu arren, Felipe II.ak gogoko izan zuen Alonso de Barrosen *Proverbios morales* poesia lana (Gutierrez, 2005: 280-281, 40. oh.). Hortaz, badirudi paremien inguruko literatura estimatzen zuela, behintzat garaian filosofia morala deitzen zuten jakintza alorrekin uztartuta zegoenean¹¹.

Filosofia morala ez zaio arrotz Garibayri, aitaren zaletasunen artean baitzegoen (“muy dado a la lectura de la Philosophia moral, y sobre todo a la doctrina eclesiastica”, Garibay, 2000: 218), nahiz eta ez duen zehazten zeintzuk ziren irakurtzen zituen liburuak. Errefrauak herri-filosofiatzat jotzen zituztenetarikoa da errefrau biltzailea bera, Juan de Mal Lara humanista eta paremiologoaren antzera, zeinak *Filosofía vulgar* izena eman baitzion bere bildumari¹². Gainera, Garibayren amaren garrantzia ere azpimarratu izan da iraganaren memoria zaintzen zuena zelakoan (Caro Baroja, 2002: 341). Amaren senitarteko zen aitabitxi ere hizkuntza, poesia eta errefrauazale zuen:

Metrificava con mucha gracia hasta en la [lengua] suya natural; dexó dichos prompts y muy avisados, que algunos dellos se suelen referir por sentencias y refranes entre los naturales de esta villa [Mondragón] (Garibay, 2000: 259).

Erregearen kronistak berak ez zituen gaizki hartuko Juan de Idiaquezen euskarazko errefrauak biltzeko eskariak lehen aldiz 1588an¹³ eta berriro 1592an, Garibayk berak azken data horietakoez esandakoaren arabera:

El señor don Juan de Ydiaquez, del Consejo de Estado de Su Magestad, deseo otros refranes en su lengua bascongada sobre los que le di antes en un quaderno, y en 18 de julio de este año de [15]92 le embie otro dellos a Valladolid con su intrepresacion interlinear palabra por palabra y el sentido dellos para su mejor declaración. Recibiolos en Valladolid, yendo en compañía de Su Magestad al viaje que se dira abaxo en suma, y respondiome con mucho gusto de su recibo (Garibay, 2000: 459).

Oraingoan Idiaquez dugu azkenean kronista izendatu berriaren patroia, baina berriro ere litekeena da Idiaquezek errefrauok Felipe II.ari eskaintzeko asmoa izatea. Hortaz errefrauaren bilketarako sakoneko indarra gorteko dina-

11. Paremiologiaren eta filosofia moralaren gainezarpenaz XVI. mendeko Espainian (Mal Larak ordezkatzeko duen herri humanismoan nahiz Brocensearen humanismo klasikoan) ikus, esate baterako, Merino, 2002: 154-155.

12. Ameriketara *Compendio historial*-aren aleak bidaltzeko Sevillan (Mal Lararen hirian) egindako egonaldiaren berri ematen duen bitartean, zera dio narrazioaren harian errefrau bat txertatzean: “por ser gran verdad lo del (sic) philosophia vulgar: ‘Quien no parece, perece, y a lo tuyo, tu...’” (Garibay, 2000: 336).

13. Jesus Moyak bi aldiz behintzat eman du data hori: Garibayri eskainitako monografian (Moya, 2000: 136) eta haren *Discurso de mi vida*-ri egindako sarreran (Garibay 1999: 34), baina iturria aipatu gabe. Garibayren errefrauak aztertu dituztenen ikerketa lanak arakatzea alperrikoa izan da data hori baiezteko.

mika izango litzateke hala Garibayk osatutakoetan nola 1596an Iruñean argitaratutakoetan edota Isastik bildurikoetan:

Ez dirudi XVI. mendearen amaieran *R[efranes y S[entencias]* bezalako bildumarik espero genezakeenik Bizkaiko (edota Euskal Herri osoko) herrixkaren bateko ezein elizgizonengandik eta bai nolabaiteko kulturguneren baten inguruan kokatzen zen laiko ikasiren batengandik. Ez da ahazteko, bidenabar, ez apaiz baizik historialari zen Garibaik berak ere ez zituela errefrauak Arrasaten eta Arrasaterako bildu, kortisau baten eskariz baizik, edota Isastik ere gortean idatzi zituela bereak (*Compendioa* bera bezala) eta ez Lezon (Lakarra, 1996: 135-136).

Garibaik bere bildumetatik batentzat aukeratutako titulua bera adierazgarria da, eskuizkribuaren faksimilean ikus daitekeenez: *Philosophia moral en bascuence por refranes*. Nabarmen ageri zaigu hemen Garibay apologistaren sena euskara hizkuntza barbarotzat jotzen zutenak errefutatzeke, errefrauak filosofia moralaren jakintza alorrekin uztartuz hala tituluaren nola errefrau-bildumaren sarrera gisa emandako hizkuntzaren deskribapenean. Izan ere, errefrauak lirerateke Garibayren irudiko euskararen elegantziaren frogarik sendoena: “debaxo de pocas palabras, es copiosa en sentencias morales como lo manifiestan sus antiguos refranes” (Zubiaur eta Arzamendi, 1976: 133)¹⁴, eta sententziatsua izatea filosofiari ez ezik elokuzio erretorikoari dagokion *ornatusaren* ezaugarri ere bada lakonismoaren prezeptistek bildu zutenek (Fumaroli, 2002: 159-165).

Euskararen apologista ez ezik, bere garaiko gizarte egitura sakonetik ezagutzen duen gizona dugu Garibay. Jakitun da, hortaz, gorteko gizartearen gunea erregea bera dela eta haren gustuek gorteko kultura eta literatura baldintza dezaketela:

Merece destacarse un hecho que, en el contexto de una monarquía cortesana, tuvo una gran importancia dado el lugar tanto simbólico como efectivo que ocupaba en ella el Rey: los gustos personales de cada monarca. A Felipe II no le gustaba especialmente la poesía, mientras que su nieto [Felipe IV] llegó a intervenir como actor en representaciones palaciegas y asistir ocasionalmente a comedias y academias (Gutierrez, 2005: 34-35).

Errenazimenduko gortesauaren ereduak eskatu bezala (Enciso, 2008: 54), Garibayk behin eta berriz aldarrikatzen du gerran bezain trebea letretan izan dela. Beti ere erregearen zerbitzuan¹⁵. Eta iraganeko gipuzkoarren

14. Zubiaur eta Arzamendiren artikuluan errefrauen bildumari egindako sarreraren amaiera soilik ageri da faksimilean. Euskararen berri laburra ematen duen sarrera bera Urquijok transkribatu zuen oso-osoan (Urquijo, 1919: 1-2).

15. Ikus Segurako Biltzarrak Garibayren alde idatzirikoa gomendiozko gutuna: “siempre acudió al servicio de vuestra merced en todas las cosas que se ofrecieron, así en las de la guerra de esta frontera como en las demas de su real servicio, [...] y // (187 r.) antes y despues se ha dado mucho al estudio de letras humanas, de que da testimonio su obra intitulada ‘Compendio Historial’ que anda estampada, ordenada y compuesta muy en servicio de Nuestro Señor y de vuestra merced, y gran utilidad y honrra de sus reynos y señorías” (Garibay, 2000: 433). Moyaren iritzian Garibayk berak idatz zezakeen gutuna (Moya, 2000: 127).

artean armak indartsuagoak izan direla aitortzen badu ere (“siendo aquella tierra, donde se ha tennido mas cuenta con las armas y navegacion que con las letras”, Garibay, 2000: 149), bere garairako letren tokia agerikotzat jotzen du (“Yñigo Lopez de Mendoça [duque del Infantazgo] me dixo que él no avia pensado que en Guipuzcoa ubiese letras, sino armas, y a esto respondiendole yo ser yo el minimo dellos en ellas”, Garibay, 2000: 301), itxurazko apaltasunak estaltzen ez duela arrasatearraren harrotasuna dukearen ordura arteko iritzi okerra zuzentzeko gai izan delako.

3. XVII. MENDEKO POESIA IDATZIA ETA BIOLENTZIA SINBOLIKOA

Garibayk bere buruaz eta bere garaiko euskaldunetz eraiki duen irudia Covarrubiasek bere egingo du *Tesoro de la lengua castellana o española* lan ospetsuaren “Cantabria” artikuluan: “Los vizcainos son grandes soldados por tierra y por mar; y en letras y en materia de gobierno y cuenta y razon, aventajados a todos los demás de España” (Covarrubias, 2007: 432). Baina errege berriarekin gobernua aldatu zen eta Juan de Idiaquezek Felipe III.aren babesa gorde bazuen ere, burokrata euskaldunen eraginkortasuna murriztu egin zen erregearen ingurunean (Caro Baroja, 2000: 120). Eta horrekin batera Lermako dukeak gidatzen zuen gorteko giro bizian literatura idazleak ohartzen hasiak ziren gizarteak gero eta hobeto bereizten zituela letratu eta juristengandik (Gutierrez, 2005: 121). Letratu horien artean euskaldunak ugari ziren. Izan ere, euskaldunen kaparego unibertsal defentitu beharrak Euskal Herriko Gaztelara eta hemendik Monarkia Katolikoaren inperioaren lurraldeetara ateratzen zirenen alde letratu trebean agerrera ekarri zuen (Otazu eta Diaz de Durana, 2008: 73-74). Euskaldunak Gaztelan eta monarkiaren burokrazian hartzen ari ziren tokiak azal lezake gaztelarren erreakzioa hauek eurentzat gorde nahi zituzten lanpostu onuragarriak euskaldun “arrotzek”, barbaroek alegia, kentzen zizkietelakoan. Baina letratu euskaldunen existentziak berak eta arrakastak gezurtatu egiten zuen neurri batean barbaro zirelako salaketa hori.

Barbarismo salaketari, orduan, beste bat gehituko zitzaion: poetarik ez zegoela euskaldunen artean, gorago ikusi dugun bezala. Eta hirugarren salaketa bat ere erantsi zitzaion aurreko biei letratuen ugaritasun eta arrakastan oinarritua hau ere: euskaldunak juduen leinukoak zirela juduen ohizko ogibideen artean zirelako letratu zereginak eta euskaldunek juduak ordezkatu zituztelako zeregin horietan (Otazu eta Diaz de Durana, 2008: 65-66 eta 104). Salaketa biak Lemoseko kondearen inguruntetik hurbil daude, alegia, Felipe III.aren gortean jaun eta jabe zen Lermakoarengandik oso hurbil. Lermako dukearen senitarteko izanik, Pedro Fernandez de Castro Lemoseko VII. Konteak kargu politiko gutiziatuenak lortu zituen (Indietako kontseiluko presidente, Napolesekko erregeorde eta Italiako kontseiluko presidente), eta horiekin batera gortearen inguruko idazle ugari babestu zuen, bai eta bere literatura zaletasuna garatu ere (Enciso, 2008: 56-58).

Lemosekoak berak gogora ekarri zuen euskaldunen jatorri judutarra *El buho gallego* lan satirikoan. Honen arabera, Tito enperadoreak biziirik utzi zituen judu bakanei Jerusalem suntsitu ondoren izen berria eman

zien: “Vicecaynes, por imitadores de Cayn, que por invidia matò a su hermano Abel, y ellos por ella a el verdadero Abel Christo nuestro Dios”. Izenberrituriko juduak goduek esklabo eginik, Espainiara ekarri eta basamortu menditsuetan lekutu zituzten. Ereku horretara mugaturik gelditu ziren harik eta lurraldeari berari euren izen berria eman zioten arte: “Estos vicecaynes dieron nombre a estas montañas de Vicecaya, y oy se conserva en él, y en lenguaje diferente de todas las naciones de Europa, en todo y en parte” (Mañaricua, 1976: 36-37). Bizkaiaren etimologia hori, ordea, ez zen Lemosek asmatua. Mañaricua XVI. mendearen erdialdean aurkitu dituen haren aztarnak, bai eta Ibarguen Cachopin kronikaren idazleek ezagutu zutela frogatu ere (Mañaricua, 1976: 36-37, 20a oh.). Litekeena da, beraz, kronistek teoria iraingarri horri erantzunez Kantabriaren kontzeptua hobetsi izana Bizkaiaren gainetik eta horrekin batera Kantabria hitzarentzat etimologia ohoretsuagoa bilatzea, gotizistek Bizkaiarentzat asmatutakoa bezain faltsua bada ere:

Erromatarrek harritu egiten omen ziren ikaragarri hildakoen aurrean euskaldunak kantuan ikusi eta entzutean. Nola ez zen, bada, herri kantaria izango, Noek berak bersoz eman bazien Jainko bakarraren legea, kantatuz gogoan gorde eta sekula ahaz ez zezaten? Hortik etorri omen zitzaien Kantabria izena: “patria e región de cantares”, eta kantatzeko ohitura (II: 21) (Arriolabengoa, 2008: 84).

Ibarguen eta Cachopin kronistek eresien genero poetikoarekin lotu zuten euskaldunen kantu zaletasuna. Halatsu Lemosekoaren satiran ere zozo kantariak irudikatzen dituzte euskaldunak: “una manada de Tordos o Sanchitos que desde lo alto de vn alamo cantauan en Vasquenço” (Mañaricua, 1976: 29-30), poesia edo literaturarekiko atxikimendu oroz erantzirik, ostera. Hegaztiak Espainiako erreinu edo herrialdeen ordezkari diren alegi honen helburua ez da (meta)literarioa, politikoa baizik. Kondeak Galizia ordezkatuta ikusi nahi zuen Gaztelako gorteetan, Zamora hiriaren ordura arteko bitartekaritza alde batera utzita, baina ez zuen bere asmoa lortu Lerma erregearen pribatu zela eta aukerak are gehiago murriztu ziren Felipe III.ak Lerma eta Lermaren alderdikoak, Lemos bera besteak beste, gobernu zereginetatik aldentu zituenean 1618an.

Baltasar de Echavek *Discursos de la antigüedad de la lengua cantabra bascongada* Mexicon 1607an argitaratu zuen lan apologetikoa Lemosi eskaini zion, artean kondea Indietako kontseiluko presidente zela, “coluna firmissima y defensor continuo de la naçion Bascongada” delakoan. Horrexegatik ez litzateke harritzekoa izango “que [...] haya querido la lengua Bascongada, en estos nuestros tiempos ampararse y abrigarse debaxo la sombra del antiquisimo y Real escudo de V[uestra]. E[xcelencia].” (Echave, 1607: z. g.). Baina *El buho gallego* idatzi zuenerako Lemosen euskaldunekiko jarrera oso bestelakoa zen, behar bada ez zuelako bere egitasmo politikoetarako euskaldunengandik espero zuen babesa jaso, edo hori uste du *El tordo vizcayno* izeneko lanaz erantzun zion euskalzaleak:

Aquel nombre de amigo tan santo y venerable se le oluidò a este autor, arrojándose embidioso y apassionado a una ficción tan indiscreta, fundada

en su mala inclinación y rancor; que excitò en su ambicioso pecho el no aver hallado la correspondencia que imaginó en algunos vizcaynos, para sus designios (Mañaricua, 1976: 81).

Euskaldunen defendatzaile zelakoan Echavek horrenbeste laudatuko aristokratak ez zuen inoiz kezkarik erakutsi euskaraz idazten zuen norbait babesteko. Lemos Sandoval leinuarekin familia harremanez loturik zegoen (alegia Lermako dukearekin eta honen seme ziren Ucedako dukearekin eta Saldañako kondearekin), Osunako dukea ere zegoen bezala, eta erregearen inguruan osaturiko boterearen alorrean ordezkari eraginkorre-tarikoak ziren. Denen artean euskaldunen irudikapen estereotipiko edota kritikoak¹⁶ eraiki zituzten idazlerik arrakastatsuenetarikei babesa eskaini zien: Cervantes, Lope de Vega, Velez de Guevara, Salas Barbadillo eta Quevedo, besteak beste, literaturaren alorreko ordezkari seinalatuenetariakoak alegia. Aristokratak eta idazleak biltzen zituen sarea bat zen. Sare horrek gaztelaniazko literatura sorkuntzari sekulako bultzada ematez gain, euskaldunen artean poetarik –edo poeta onik behintzat– ez zegoela aldarrikatzen zuen, euskarari buruzko iritzia publiko kaltegarria sortzearekin batera.

Boterearen alorrarekin hain harreman estua zuten idazle horiek elkarren artean lehiatzen ziren alor literarioko hierarkian posizio sendoak lortzearen, posizio horiek dakarten kapital kultural sinbolikoa gorteko kargu edo beste-lako ondasunetan transmuta zitezkeelako (Gutierrez, 2005: 19). Posizio sendo horietara heltzeko hor lehenagotik daudenen legitimazioa behar da:

[...] cuando un agente o grupo de agentes que ya ocupan determinadas posiciones en un campo certifican o (con)validan a otro agente u obra lo están legiti-mando al expedir un marchamo de similitud, de contigüidad, de valía (Gutierrez, 2005: 98).

Hortik etorriko da azkenean konsagrazioa. XVII. mendean, oraindik Errege Akademia bezalako erakunde ofizialak sortu gabe zirenean, alorreko beste eragileen esku zegoen sinbolikoki konsagratzeko boterea eta biolentzia sinbolikoa erabiltzeko gaitasuna:

El grado de consagración literaria descansaba más, pues, en los juicios y opiniones de otros agentes del campo, aunque ciertamente estos podían trasladarse también a las academias que, antiguas o modernas, siempre suelen funcionar por medio de un sistema de cooptación por el que quienes ya pertenecen a dichas instituciones seleccionan o invitan a quienes consideran dignos de convertirse en nuevos miembros de la corporación. En este sentido, elegir y sobre todo no elegir a alguien se convierte en un ejercicio de violencia simbólica (Gutierrez, 2005: 101).

Cervantesen *Viaje al Parnaso* edo Lope de Vegaren *Laurel de Apolo*, besteak beste, alorreko eragileen eta lehiakideen arteko konsagrazio baliabideen eta biolentzia sinbolikoaren adibideak dira. Halakoxea da Salas Barbadilloren

16. Ikus, esate baterako, Legarda (1953) eta Herrero García (1966) ikertzaileen lan klasikoak, eta horiekien batera Azurmedi (2000).

Coronas del Parnaso ere, baina honetan biolentzia sinboliko hori alorreko eragile zehatzei zuzendu beharrean gizarte talde osoei zuzendu zaie (“los versificantes manchegos y vizcainos”) talde horiek oso-osorik Parnaso menditik kanpo uzteko asmoz, alor literariotik kanpo alegia. Poeta euskaldunei dagokienez, Salas Barbadilloren hitzek Gaztelako gizartearen iritzi zabal baten oihartzun direla Correasen erretra da lekuko: “No lo estimo en un cantar vizcaino”. Lope de Vega ere iritzi berekoa zela ikusi dugu (“que juras a Dios que es buenas / y muy buenas poesías / que le cantas en vascuenzas”). Cervantesi dagokionez, itxura batean biolentzia sinbolikoak eskatuko lukeen bazterketaren kontra ageri bada ere (“no se desestime el poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aun el vizcaíno, que escribe en la suya”), funtsean kondeszendentzia estrategia¹⁷ soila erabiltzen ari da, orden sinboliko berak eskaini dion konsagrazioaren gailurretik adierazi baitu iritzi “berezi” hori. Iritzi nagusiak euskarazko poesiarako aukerarik ez dagoela dioen arren, idazle konsagratuak ia arau bihurturiko iritzi hori urratzeko baimena du, iritzi nagusia azpimarratzen duen bitartean:

Uno de los privilegios de la consagración reside en el hecho de que confiere a los consagrados una esencia indiscutible e indeleble, una esencia que autoriza transgresiones de otra forma prohibidas (Bourdieu, 1999: 85).

Euskaldunek ezin dute euren poesiaren balioa aldarrikatu barragarri iruditu gabe, baina Cervantesek bai.

Garibayren garaian oraindik ere letrak menderatzea nahikoa bazen alor literarioan onartua izateko, XVII. mende hasieran Espainiako lehen alor literarioa eratu zen unetik gehiago beharko da alor horretako kide izateko. Poetak euren talde identitatea garatzen hasiak dira, haien irudi publikoa letratu eta humanistengandik gero eta bereizgarriagoa zela jakitun. Horrela azaltzen da horrenbeste idazle Hermandad y Congregación de Indignos Esclavos del Santísimo Sacramento izeneko kongregazio eta era berean akademiaren kide egitea 1608an Madrilen sortu zenetik, halako erakundeak baitziren “lugares donde los escritores podían ser vistos y en los que podían reforzar su creciente autonomía mientras señalaban su adhesión al orden dominante” (Gutierrez, 2005: 121). Ordena menderatzailearekiko atxikimendua, dena den, poesiaren beraren eta literaturaren lehengai den hizkuntzari buruzko iritziekin hasten zen. Izan ere, estatua kapital mota ezberdinen konzentrazio prozesuaren emaitzatat jo da, alegia indarkeriaren kapitalarena, kapital ekonomikoarena, kapital kulturalarena eta kapitalaren forma horien guztien konzentrazioaren baldintza den kapital sinbolikoarena. Monarkietan erregeak du bereganatua kapital sinbolikoa (Bourdieu, 2007: 111), eta XVI-XVII. mendeetan Habsburgo dinastiaren esku zegoen Monarkia hispanikoa ez zen salbues-

17. Hala azaltzen du Bourdieuk berak zertan datzan kondeszendentzia estrategia: “Llamo estrategia de condescendencia esas transgresiones simbólicas del límite que permiten tener a la vez los beneficios de la conformidad con la definición y los beneficios de la transgresión” (Bourdieu, 1999: 84). Hizkuntza eta kultura menperatuarekiko menperatzailearen kondeszendentzia estrategiak ikus ere Bourdieu, 1999: 41-45.

pena. Beraz, alor kulturalari dagokionez ere, estatuaren buru den erregeak eskuratua du kapital sinboliko kulturalaren monopolioa:

[...] la cultura es unificadora: el estado contribuye a la unificación del mercado cultural unificando todos los códigos, jurídico, lingüístico, métrico, y llevando a cabo la homogeneización de las formas de comunicación, burocrática en particular (por ejemplo los formularios, los impresos, etc.)

[...] la unificación cultural y lingüística va unida a la imposición de la lengua y de la cultura dominantes como legítimas, y a la relegación de todas las demás a la indignidad (dialecto) (Bourdieu, 2007: 105 eta 107 hurrenez hurren)¹⁸.

Hizkuntzari dagokionez jakina da euskara hizkuntza barbarotzat jotzen zuela boterearen inguruetik sortutako propaganda gaztelaniazentrikoak, eta euskaldunak barbaro eta laburtzat (*cortos*). Bourdieuren iritzian biolentzia sinbolikoa eraginkorra da menderatuek menderatzaileen ikuspegia bere egin dutelako:

lógica [...] que exige que las artes de vivir dominadas casi siempre sean percibidas, por sus propios portadores, desde el punto de vista destructor y reductor de la estética dominante, la violencia simbólica [...] arranca sumisiones que ni siquiera se perciben como tales apoyándose en unas «expectativas colectivas», en unas creencias socialmente inculcadas (Bourdieu, 2007: 21 eta 173 hurrenez hurren).

Horren lekuko dugu Garibay bera *Compendio historial* mardularen hasieran (Caro Baroja, 2002: 357) bere burua zuritzeko premia erakusten duenean hizkuntzaren erabilera dela-eta: “a los cantabros, si en las armas y milicias y cosas navales queda recompensa, les falta la lengua castellana [...]”. Los cantabros son cortos de razones” (Garibay, 1608: 20).

XVII. mendean zehar ere biolentzia sinbolikoa erabiltzeko aukerak ez dira faltako, ikusten hasiak garenez. Iritzi publikoaren sorreran ekoizpen sinbolikoak duen garrantziaz ohartuta, Lermako dukeak ez zuen aukerarik galtzen ospakizunen aitzakiz gorteko jaiak antolatzeko, horixe baitzen bake garai hartan errege familia eta handikien leinuak kontrolpean izateko bidea. Jai eta ospakizun horietan berebiziko tokia zuten artista eta idazleek. Ez nolana

18. Hizkuntza dela eta, iritzi beretsua garatua zeukan Bourdieuk lehenagotik ere, *¿Qué significa hablar?* liburuak ageri duenez: “Para que una forma de expresión entre otras (en el caso del bilingüismo una lengua, un uso de la lengua en el caso de una sociedad dividida en clases) se imponga como la única legítima, es preciso que el mercado lingüístico se unifique y que los diferentes dialectos de clase (de clase, de religión y de etnia) se midan en la práctica por el rasero de la lengua [legítima] o según uso legítimo. La integración en una misma «comunidad lingüística», que es un producto de la dominación política constantemente reproducida por instituciones capaces de imponer el reconocimiento universal de la lengua dominante, constituye la condición de la instauración de relaciones de dominación lingüística” (Bourdieu, 1999: 20). Bourdieuk teorikoki azaldutako egoera aski egokia da gaztelania eta euskarak XVI-XVII. mendeetan bizi zuten harremana deskribatzeko. Euskaldunek ere gaztelania erabili izanak ez soilik monarkiaren erakundeekiko harremanetan baizik eta bertakoetan ere legitimitatea gaztelaniari aitortzen zitzaiola adierazten du.

Jerma Europako mezenas garrantzitsuentzat jo izan da XVII. mendearen hasieran (Feros, 2002: 189-190). Errege familiarren ospakizun horietako batzuek, behar bada Felipe III.aren erregealdiko ospakizunak garrantzitsuenak, egun batzuetan Euskal Herriko lurretan ere bizi izan ziren, Isabel Borboikoa eta Ana Habsburgokoa elkarren artean trukatu zituztenean lehena Espainiako printzearen eta bigarrena Frantziako erregearen emazte izateko. Trukaketa Bidasoaren uhartean gertatu zen. Bi gorteak, zeinek bere ohizko hiria utzita, mugatik hurbilago zirenetara aldatu behar izan zuten, Bordele eta Burgosera alegia, hiri horietan ospatuko baitziren ahalordezko ezkontzak trukaketa gertatu baino egun batzuk lehenago. Burgosen Lermako dukeak Luis XIII.aren tokia bete zuen. Ospakizunak era guztietako ostentazioetarako aukera eman zien Lermari eta bere inguruko handikiei. Katedralerako desfilean handiki horiek euren sekitoetako kide ziren poetek inguraturik erakutsi nahi izan zituzten euren buruak¹⁹. Carlos Gutierrezek XVII. mende hasierako ezaugarri bi ikusi ditu uztarturik Burgoseko ospakizun horretan:

[1] una sociedad cortesana en la que la jerarquía, la ostentación y la etiqueta juegan un papel fundamental [...], y [2] el capital social simbólico que desprendía la poesía [...].

La poesía, como parece extraerse de lo anterior, había devenido en el siglo XVII un lujo simbólico que ningún aristócrata con pretensiones de brillo cortesano podía desdeñar. Así pues, los escritores en general y especialmente los poetas, aparte de su instrumentación como hombres de letras por parte del campo del poder, también se habían convertido en “bienes muebles” de los que se alardeaba y a los que se mostraba como trofeos, en una sociedad en la que la exhibición de lujo y poder estaba muy presente (Gutierrez, 2005: 159-160).

Borboi eta Habsburgokoen arteko ezkontza ekoizpen sinboliko ugariaren sorrerako gai eta aitzaki izan zen, literatura eta antzezlanak besteak beste, gaztelaniaz nahiz frantsesez, baina abagunea euskaraz ere ospakizunaren inguruko lanik sortzeko baliatu zen aztarnarik ez zaigu gelditu. Monarkien hizkuntzetan antzezlan, poema eta baletak (Perceval, 2004 3: 389-439) sortzeko horrenbeste baliabide jarri zutenek uko egin zioten euskaraz ere halakorik sortuko zuen norbait babesteari. Are gehiago, Lope de Vegak ospakizun horretaz idatzitako hiru komedietatik batean, *Las dos estrellas o los ramilletes de Madrid* izenekoan, errege familiak Gipuzkoan igarotako egunen narrazioa txertatu zuen baina bertako biztanleen alteritatearen berri emateko: “Por Dios que son Lucindo peregrinas / las costumbres, y el traje / de Guipuzcua” (Vega, 1618: 68 aur.). Muga ondoko eremu urrunetan gortekoak ez bezalako usadio berezi eta arrotzak omen dituzte: Pasaian emakumeak dira batelari (Perceval 2004, 2: 375-376 eta 3: 402) eta errege familiarren kideei leialtasuna erakustera atera diren “probintzianoek”, gaztelaniaz kantatzen dakiten arren, euren ohiturak bezain arrotza den hizkuntza exotikoan onduriko kantu bat ere txertatu dute (Bijuesca, 2006: 65-67). Kantu hori Bizkaierazko maitasun poesiaren adibide da, baina Espainiako literaturaren

19. Ospakizun honetan poetek zuten toki ikusgarriaz ohartzeko ikus gorago 5. oh. Ikus ere, besteak beste, Quevedo, 1943: 23-24 eta Crosby, 1956.

alorrek ez dagoela poeta euskaldunik aldarrikatuko du, nahiz eta Lope de Vegaren mailako idazle konsagratu batek euskarazko poesia hori baliatuko duen komeni zaionean.

Felipe IV.aren garaian egoera zertxobait aldatu zen, baina azaletik baino ez. Errege berriaren pribatu Olivareseko konde-dukeak, Zuñiga-Guzman klaneko kide zen heinean, Lerma buru zuten Sandovaltarren aurkari zen. Hala ere, iritzi publikoari eskainitako garrantziari dagokionez, bat egiten zuen Lermakoarekin. Horrexegatik idazle, pintore eta artisten mezenasgoa arretaz zaindu zuen pribatu berriak ere (Elliott, 2007: 209-262), baina Lermakoak ez bezala, Olivaresek monarkiaren lurraldeetako gaztelania ez beste hizkuntzak zituztenak erakartzea bilatu zuen, dirudienez, neurri politiko eztabaidagarrien aurrean iritzi publikoa ahalik eta aldekoen izateko asmoz.

Olivaresen eraginaz Felipe IV.ak Juan de Isasi Idiaquez eibartarra Baltasar Carlos Printzearen hezitzaile (“ayo”) izendatu zuen. Isasi Salamancan zela 1605ean latin eta humanitate ikasketak hasi zituenetik, hantxe bertan berak eta Olivaresek 1610ean elkar ezagutu zuten erregearen pribatu izango zena unibertsitatera heldu zenean. Ordurako Isasik irabazia zuen Salamancako ikasleen artean erudito eta poliglota ospea (Moreno, 2008: 471). 1634an Felipe IV.ak Isasiri printzearen heziketarako emandako oharren artean hizkuntzen ezagutza azpimarratuta ageri da. Oinordekoak ondo jakin behar ditu latina, frantsesa eta italiara monarkiaren gobernurako erabilgarrienak direlakoan, baina erreinuetako beste hizkuntzak ahaztu gabe:

[...] que tenga noticia particular de todas las que se usaren en mis Reynos por la satisfacción que muestran los vasallos quando conocen que su Príncipe los ha entendido lo que le han representado (Moreno, 2008: 514).

Hizkuntzak jakiteari balio politikoa eskaintzen zitzaion giro horren argitan, behar bada ez da erabat zinezgaitza Baltasar Carlos euskara apurren bat ikastera heldu zela dioen berria: “se sabe, por testimonio de su ayo, que el príncipe llegó a conocer algunas expresiones en lengua vasca” (Arocena, 2009)²⁰. Baina Olivaresen politikaren zentralismoa indartsu sentiarazi zen Euskal Herrian.

Giro politiko berorretan txertatu beharra dago Juan Bautista Alzola y Muncharaz durangarrak Domingo de Heguiaren omenez onduriko laudorioa (Arejita, 1988: 21-24). Alzolak Hondarribia 1638an frantses setiotik askatu izana ospatzen du, garaipena Domingo de Heguiaren adoreari zor zaiolakoan²¹. Hondarribiko garaipenari etekina atera nahirik Gobernuaren

20. Oharkabeen ziurrenik, Isasiri buruzko artikulua berorretan Arocenak zera dio printzearen pintoreaz: “Baltasar Carlos, a quien inmortalizó Goya en su conocido retrato”. Izan ere, gorteko pintore Velazquez zen garai hartan, eta honi zor zaizkio printzearen bi koadro behintzat. Ospetsuena Buen Retiro jauregiko Erreinuen Aretorako egindakoa dateke, printzea zaldi gainean irudikatzen duena.

21. Bada setioa Monarkiak berak erraztu zuela uste duenik, gero bere burua salbatzaile gisa aurkezteko helburuarekin (ikus Esarte, 2005).

aldeko iritzi publikoa sortzeko asmoz, Olivaresek propaganda idazlan kanpaina zolia eratu zuen. Alzolaren poema bera ere gehien bat gaztelaniaz sorturiko lan ugari horien artean lekutu izan da (Urgell, 1986, Diaz Noci, 2004). Felipe III.aren erregealdiko bakea hautsita, Monarkia Hispanikoa berriro gerra odoltsu eta garetzietan murgildua da Flandesen eta Frantziako mugan. Gerra horietarako baliabideak lortu nahian gobernuak harturiko neurri zorrotzak ez dira erantzunik gabe gelditu Gipuzkoan eta batez ere Bizkaian.

Ziur asko oraindik ahaztu gabe daude 1631-1634 urteen bitartean gatzaren gaineko zergak pizturiko matxinada eta istilu larriak Bilbon eta inguruetan. Bilboko eta Bizkaiko herria ahaide nagusien kontra altxatu da ahaideek herria saldu dutelakoan haiei horrenbeste aukera ematen dien monarkiaren eskakizun bidegabeei men eginez. Gernikako batzarrean ugari ziren jauntxoek artekoak. Horien eraginez erraz onartzen ziren koroak eskatutako emariak, alde batetik ordainketa horiek gehienbat merkatari eta herriaren sakeletatik aterako zirelako, eta beste batetik erregea pozik eduki nahi zutelako harengandik mesedeak lortzen jarraitu ahal izateko burokrazian, armadan edota elizan (Fernandez de Pinedo, 2004: 59). Gizartea ohartu egin da kaparetasun unibertsalak alde batetik nolabaiteko berdintasuna dakarren arren, beste batetik ezberdintasun itzelak onartzen dituela (Otazu, 1973: 130).

Istiluak 1634an baretu baziren ere gatzaren gaineko zerga kendu eta matxinadaren buruzagiak zigortu ondoren, nazioarteko egoerak bere hartan jarraitzen zuen eta hortaz Olivaresek gobernuak ordurarteko premia berberak zituen gerrarako baliabideei zegokienez. Hondarribiko garaipenak aukera ezin hobe eskaini du Bizkaiko gizarte egitura urratuak monarkiaren eta jaurerriko talde menderatzailearen interesen arabera berrerairik irudikatzeko. Ez dago zalantzarik esku artean dugun poema Bizkaiko herriari zuzendua dela. Alzolak goratzen duen heroia Heguia deustuarra da, Bilbo ondokoa, eta darabilen hizkuntza bizkaiera, Jaurerriko herriak nagusiki dakiena, hain zuzen ere. Poemak ez du aukerarik galtzen Heguia etsenplu gisa aurkezteko bizkaitarren aurrean: "launa orain gloria onec beroa [honek eraman beza] / besteay bero dakien euren gogo" (34-35 l.)²². Hala jokatzearan antzinako bizkaitarren bertuteak gauzatu ditu Heguiak, eta horixe egin beharko lukete bizkaitar guztiek ere ("Animadu vitez, Vizcaycoac, / yrudi eiteco achinacoac" 169-170 l.). Eta, badezpada, Heguiak eredugarri gauzaturiko bertute horiek bata bestearen atzetik aipatuko dira: lehenengo eta behin kemena, zaldunei dagokienez ("Esse [etxe] infançonaduco seme jayoa / Vizcayco onetario, animosoa" 11-12 l.), eta horrekin batera pazientzia, obediencia eta, batez ere, leialtasuna (20-34 l.). Izan ere, erregearekiko leialtasunean zintzoa izan da Heguia, bizkaitarrak ez bezala, eta berari esker garbitu dute herkideek zuten errua: "Ecin guichiago eguin cenduquean, / parcatu Vizcayari lealtadean. / [...] Ecin guichiago essan neuquean, / parcatu Vizcayari lealtadean" (141-142 eta 159-160 l.). Erregeari, noski, leialtasuna zor zaio, bera baita bizkaitarrek

22. Poemaren aipuak bai eta bertsolerro zenbakiak ere Arejitaren transkripzioetik jaso dira (Arejita, 1998: 12-20).

horrenbeste estimatzen dituzten foruen azken bermea ("Vizcayko legueac, andi foruac, / erreguen Magestadeac confirmaduac;" 171-172 l.).

Barrokoaren garaiko literaturak sistema monarkikoaren onuragarritasuna eta bidelapurrak bezalako gizarte atal kaltegarrienak ere integratzeko gaitasuna behin eta berriro irudikatzen du (Maravall, 1996: 115-116), sistema horren erpinean dagoena erregea dela. Oraingoan ere Erregea etengabe dago aipatua poema osoan zehar lehen lerrotik bertatik hasita, eta beti ere laudoriozko hitzez ("Phelipe Hespañaço, done andia / escubetu doçu mundu gustia." 1-2 l.), baina Olivares gobernuburua ahaztu gabe: "Conde Duquearen yçar arguia / çu yçango çara, Domingo Heguia:" (151-152 l.). Alzolak hemen dioena ez da gehiegikeria, Heguiari zor baitio Olivaresen gobernu eztabaidatuak frantsesen gaineko garaipena, garaipen horri ateratako etekina gobernuaren aldeko iritzi publikoa sortzeko eta, azkenik, Bizkaiko herriaren leialtasuna berreskuratzeko aitzakia. Arrazoiz esan izan da Barrokoaren garaiko kultura "gidatua" dela eta orduko poesia "aginduzkoa" dela:

Esa acción de los grupos dominantes para operar sobre la opinión, controlarla, configurarla y mantenerla junto a sí, en las crisis de muy diversa naturaleza que amenazaban la posición de aquellos, es un hecho básico del que hay que partir [...]

Si en el Renacimiento hubo una poesía "subvencionada", ahora habrá una poesía "encargada". Todos los poderes reconocen la utilidad del empleo de los poetas, se sirven de ellos: los poetas actúan sobre la opinión pública, la hacen y deshacen. Desde fines del XVI existen una poesía apologética y una poesía polémica al servicio del poder (Maravall, 1996: 157-159).

Ez dira oso bestelakoak Felipe IV.aren garaiko beste bi poema, bata Felipe Prospero printzearen jaiotza ospatzeko 1658an Martin de Iturbek idatzia eta bestea Francisco de Alesonek Felipe IV.aren heriotzean onduta (Mixelena eta Sarasola, 1990: 224-231 eta 136-138 hurrenez hurren). Poema bion atzetik ez dago gobernuaren eskua zuzenean, baina bai Monarkia hispanikoaren erakunde gorenekoak, kultural-akademikoa bata eta politikoa bestea, bitzuek monarkia horrekiko leialtasuna eta atxikimendua erakusteko ekitaldi literario banaren antolatzaileak errege familiaren ospakizunak direla-eta. Poemak biltzen dituzten argitalpenen tituluak aski adierazgarriak dira: *Relación de las demostraciones festivas de religión y lealtad que celebró la insigne Vniversidad de Salamanca. En el deseado y dichoso nacimiento del principe nuestro señor D. Felipe Prospero eta Honores fúnebres que hizo el Real Consexo de Navarra a la piadosa memoria del Rey N. S. Philippo IV el Grande.*

Halako gertakizunen inguruan erakundeek "certamen" edota "justa" poetikoak eratzen zituzten asmo legitimatzailez, "por cuanto buscaban glorificar o ensalzar a una determinada figura salida del santoral o del complejo monárquico-institucional" (Gutierrez, 2005: 148). Iturberen poemaz den bezainbatean, idazlearen berririk ezin izan bada argitu ere (Clare, 1974), ez da hain harrigarria Salamancako argitalpen batean euskaldun baten idazlana

agertu izana. Ugari ziren Gaztelako unibertsitateetan, batez ere Salamanca, Alcala de Henares eta Valladoliden “nación de Vizcaya” delakoa osatzen zuten Calahorra eta Iruñako elizbarrutietako ikasleak, sarritan oinarrizko ikasketak Oñatiko unibertsitatean egin ondoren. Iturbe talde horretako kide izan liteke ikasle horiek ere monarkiarekiko leialtasuna erakusteko aukera baliatuko baitzuten. Izan ere, bazuten koroari zer eskertu, haren bitartez goi mailako postuak lortzen baitzituzten estatuaren eta elizaren administrazioan (Rodríguez-San Pedro, 2002: 60-80).

Alesonen eta Iturberen poemek gaiaren eta molde metrikoaren aipemenean oinarrituriko titulu deskribitzaile nolabait neutroak dituzte: “Qvartetac gure Principe launear-ren D. Phelipe Prospero gaiocce [jaiotze] dichosoan” eta “Gure erregue Philippe andiaren heriotzean euscarazco coplac”, hurrenez hurren. Alzolarenak ere badu horretatik zerbait (“Cancion vizcayna en me[t]ro vizcayno, hecha en alabanza de los hechos heroycos de D. Domingo de Heguia [...]”) baina besteetatik bereizten dituen ezaugarri nabarmenik ere ez du falta: gaztelaniaz idatzita egoteaz gain, generoari dagokionez “cancion vizcayna” gisa identifikaturik ageri da, alegia gorago ikusi dugun biolentzia sinbolikoak hedaturiko “cantar vizcaino” haren hurbilekoa.

Aurreko erregealdian euskarazko poesia baliogabeko “cantar vizcaino” izatera murriztu eta Euskal Herrian poetarik ez zegoela zioten literaturaren eta boterearen alor espainiarrek. Orain, oster, eta paradoxikoki, boterearen alorrak ez du eragozpenik onartzeko badagoela euskaraz poesia egiteko gaitasuna duenik, ez eta iritziz publikoaren mesedetan euskarazko sorrera poetikoa bultzatzeko, puntualki soilik bada ere. Ez dakigu, dena den, “cancion vizcaina” izendapena Alzolari berari zor zaion ere, baina beronena izatekotan, badirudi salbuespena litzatekeela euskaldun batek bere lana era horretara deitzea, Iturberen eta Alesonen tituluak erakusten dutenez. Mikoleta garai-kideak ere gurago izan du “poesia vizcayna” era neutroagoa erabili edo kategoria berri bat asmatu, “vascuences”, hizkuntza izendatzeko hitzari molde metrikoaren balioa gehituz, gaztelaniazko *romance* hitzaren eredian oinarrituta nonbait, hizkuntzari eta molde metrikoari dagozkion adierak biltzen dituen hitza izanik (Bijuesca, 2008: 14). XVI. mendean ere ez dirudi “cantar vizcaino” edo “cancion vizcaina” izendapena darabilen euskaldunen baten lekukotasuna dagoenik. Garibayz geroztik (Garibay, 2002: 174 eta Caro Baroja, 2000: 331), Erdi Arotik zetozen aztarna poetikoetarako *eresi* hitza hobetsiko da, Oihenartek ere gogoan duen bezala (Arriolabengoa, 2008: 82-84).

Paradoxez dihardugez gero, ez da aurrekoa baino txikiagoa Monarkiaren gobernua izatea Heguiaren “cancion vizcayna” horren eragilea gobernuaren alde jokatzeko ari ziren jauntxoek Bizkaiko Batzar Nagusietan ahalduz izateko gaztelaniaz berba egiten eta idazten jakin beharra ezarri zuten bitartean, neurri horri esker gatzaren gaineko zerga bezalako kontraforu nabarmenak Batzarrak errazago onartuko zituelakoan gizarte maila apalagoetatik zetozen euskaldun elebakarrak baztertu ondoren (Urrutia, 2003: 31-38; Azurmendi, 2000: 383-386).

XVII. mendearen amaiera aldeko egoera badirudi ez zela oso beste-lakoa 1688ko *Bertso bizkaitarrak* poemari adituz gero. Arestiko idazlanak Maravallek “poesía apologética” deituriko taldean sailkatzeko modukoak izan badira, oraingoak “poesía polémica” delakotik ere zerbait badu, Bizkaiak eta Gipuzkoak garai hartan bizitako istiluak baititu mintzagai. Izan ere, 1686an Bizkaiako Batzarrak burdin mea jaurerriak ateratzea debekatu zuen agortzen ari zelakoan. Bizkaiko mea Gipuzkoako oletarako ezinbestekoa zenez, probintziako biltzarrak 1688an neurri latzak hartu zituen Bizkaiaren kontra: jaurerriarekiko salerosketa ororen debekua eta lurralde batetik bestera eramandako salgaiak salatzeko agindua, herri guztietan alardeak egi-tea Donejakue egunez eta bolbora biltzea, besteak beste (Lakarra, 1984: 100-106)²³.

Giro horretan, Gipuzkoako Biltzarraren erabakiak salatu eta Bizkaikoare-nak defendatzeko asmoz, jaurerriko “boterearekiko hurbiltasuna” erakus-ten duen apaiz ezezagun batek *Bertso bizkaitarrak* ondu zituen: “goitik eskatu, eta saritu, lan baten aurrean ez bagaude, ez dirudi Jaurerriak begi gaiztoz ikusia izango zenik ere” (Lakarra, 1984: 108). Gipuzkoaren bitupe-ria hasieratik egiten da ageriko, probintziaren akatsak aipatuta: Luzbel eta lkaroren adinako “altiezeza” edo harrokeria, Bizkaiari eraso egiterainoko inbidia, egindako mesedeak ez aitortzeko moduko “vanidadea”. Bizkaitarrak, ostera, “Cain nola” jokutzen ari den anaiaren aurrean (*bice-cain* etimología asmatuaren oihartzuna?), adoretu daude auzo asalduaren eraso asmoa “amenazua” baino ez dadin izan, gipuzkoarrak bezain “mosugorac” dira-eta. Arabak ez bezala, Bizkaiak Gipuzkoari historian zehar zenbat aldiz lagundu dion gogora ekarrita (erromatarren garaietatik hasi eta Egiak Hondarribian egindakora arte) probintziaren jarreraz irudi barregarria eraiki ondoren, ahots lirikoak paradoxikoki bere asmo onak erakutsi (“anae ta ausoari / galdutea lustrea / ezta gure honrea”) eta, etorri poetikoa agortu orduko (“acabadu yat musea”), San Inaziori azken *petitioa* zuzentzen dio bakea egin dezan patro-i izendatu duten bi lurraldeen artean. Euskarazko poemak ez du kutsu satiriko-rik falta, baina beti xalotasunez botatzen ditu eztenkadak.

Bertsooi gipuzkoar ezezagun batek emandako erantzunean, ostera, alor literariotik egindako biolentzia sinbolikoaren indar guztia erabili da. Tituluak berak iragartzen du poemari ugari diren kontzeptu metapoetikoaren garrantzia *Bertso bizkaitarrak* epaitzeko: “Respuesta a la canción bascongada que ha salido del S[eño]río sobre la diferencia que ay por la vena, en verso espa-ñol; en sexta rima”. Gaztelaniaz idatzitako erantzunean, endekasilaboan oinarrituriko “sexta rima” izeneko molde metrikoa hautatu da, kutsu aris-tokratikoduna Boscanek jatorri italiarreko moldeak gaztelaniazko literaturara egokitu zituenetik (Lorenzo, 2005), prestigiotsua baina era berean berrizalea, Barrokoaren garaian “sexta rima” oraindik gutxi erabilia baitzen. Euskarazko

23. Lakarrari zor zaio garaiko gorabeherak gordinki aipatzen dituen *Bertso bizkaitarrak* poemaren azken edizioa, bai eta ekdotikaren aldetiko argibideak ere. Poemaren aipuetarako eta honi Gipuzkoak emandako erantzunerako (“Respuesta a la canción bascongada [...]”) edizio berau erabili dugu (Lakarra, 1984: 116-123 eta 179-184 hurrenez hurren).

bertso sorta, oster, “canción bascongada” soiltzat jotzen da, aurretik ikusia dugun “cantar vizcaino” estimaziorik gabekoaren parekoa.

Bizkaikoaren argudioak errefutatzen hasi orduko, euskaraz halakorik asmatu izanaren ausarkeria salatuko du gaztelaniazkoak lehenengo eta behin: “Vuestro empeño es deidades del Parnaso / desterrar esta loca y arrogante / Musa viscaína, que ha salido acaso / ha [sic] obtener fama [...]” (1. ahap.). Eta bertsolerroon prosazko azalpenak ere kritika poetikoaren hildotik jarraitzen du: “Dícese por ser la canción nada assonante ni consonante, sino toda ella, tanto en el arte de la obra como en el epílogo narratibo una pura dissonancia”. Beherago ere idazlearen gaitasun eza satiraren generoan salatuko da, literaturaren alorreko kritika isuriz berriro ere: “A satírico entráis, señor poeta, / necesidad tenéis de más dulçura / [...] temed que vuestra sátira aya echo / más que a nosotros, daño a vuestro pecho” (10. ahap.), prosazko azalpenak “obra satírica tan arrogante y mal fundada” dela azpimarratzen duen bitartean. Bertsogile euskalduna “poeta nuevo” soila baino ez da, hilargiari haginka egin nahi dion txakurraren parekoa Gipuzkoaren gorentasunari eraso egin dionean (16. ahap.).

Esandakoa gutxi balitz, idazle euskaldunak *decorum* edo *aptumarem* prezeptua ere hautsi du igorlearen eta generoaren arteko egokitasunari eutsi ez dion heinean satira ondu duen apaiz batek: “guerra vozean y discordia claman; / no aduirtiendo que deuen sus sermones / ser para disipar todas pasiones” (14. ahap.). Ez da harrizkoa halako okerra (*yerro*) egitea burniaz (hori ere *hierro*, *yerro*) ganezka dagoen Bizkaia: “No me admiro que salgan en Viscaya / tales obras de una vena, pues les sobra, / ni el que procuren que adelante vaya / su obra de yerro, cuando el hierro obra” (12. ahap.). Poeta gipuzkoarrak aditzera ematen du okerra Bizkaitik atera den poema eta Batzarrak harturiko erabakia direla. Baina gogoan hartu beharrekoa da topiko literario hedatua zela garaian “hierro(s) de Vizcaya” dilogia barregarria, Bizkaiko burdina eta era berean Bizkaiaren (edota Euskal Herriaren) okerra adierazteko erabilia: hizkuntza alegia²⁴. Beraz, zuzen esaten ez bada ere, argi adierazten da Bizkaitik ateratako bertso sortaren behin-behineko okerra euskaraz ondu izana dela.

Aipaturiko guztia nahikoa ez balitz, Gipuzkoako erantzuna aipu eruditoz hornitua dator, idazlea humanisten kastakoa dela iradoki nahirik, Bizkaiko apaiz euskalduna ez bezala. Gaztelaniaren alor eta tradizio literario sendoan babestuta, erantzunaren egileak bere burua legitimatua ikusten du biolentzia sinbolikoa edonondik erabiltzeko *Bertso bizkaitarrak* euskarazko ahapaldi sortaren kontra. Oraingoan, baina, biolentzia sinbolikoa ez dator gorte inguruko idazle arrotz batengandik, gipuzkoar batengandik baizik.

24. Oraindik 1692an sor Juana Ines de la Cruz mexikarrak topiko bera erabili zuen *Segundo volumen de las obras de Soror Juana Ines de la Cruz* bildumarako idatzi zuen eskaintzan: “no extrañará Vizcaya que se le tributen los hierros que produce” (Bijuesca, 1999: 159-160, 10 oh.). Tirso de Molina *La prudencia en la mujer* komedian izan liteke hitz jokoa erabiltzen lehenengotarikoa, baina hizkuntza okerrarekin lotu gabe oraindik: “Señor soy de Vizcaya: / minas son las entrañas de sus cerros, / que hierro dan con que castiguen yerros”.

Deigarria hemen idazlearen jatorrizko lurraldea baino (bizkaitarra, arabarra edo nafarra ere izan zitekeen), XVII. mende amaierako Euskal Herriko seme batek duen jarrera da: zenbateraino ikusten duen bere burua Espainiako alor literarioaren parte, zenbateraino bereganatu dituen alor horretako joko arauak, bai beraren poema sortzerakoan, bai eta euskarazkoa epaitzerakoan, alegia zenbateraino onartzen dion bere buruari euskarazko poemaren eta behar bada euskal poesiaren kontra biolentzia sinbolikoa erabiltzeko eskubidea. Jarrera hori, baina, aspalditik zuten euskaldun batzuk bereganatua. Apraizek Sevillan 1623an agerturiko liburu baten berri jaso du: *Fiestas de San Ignacio de Loyola y San Francisco Javier celebradas en Sevilla*. Euskaldunon kanonizazio jaialdietarako onduriko lanen artean bazen soneto bat Antonio de Ibarra euskaldunak idatzia zeinetan San Inazio *vizcaino*en hizkera estereotipatua erabiliz ageri den errepresentaturik deabruari iruzur egiten (Apraiz, 2005: 118).

Bourdieu esaten zigun biolentzia sinbolikoa eraginkorra izango bada biolentzia hori pairatzen dutenen onespina behar dela. Ikusi dugu horren adibiderik Egiaren kantuan. Beste bat XVII. mende hasierako Iruñean gertatu zen. Antonio Venegas de Figueroa apezpikuak 1610eko Corpus egunerako jaialdia eratu eta bertan, aurreko urtean bezala, zenbait ekitaldiren artean *cartel poetico* edo poesia lehiaketa bat ere izan zen, euskaraz ere bai. Baina aurreko urtean ez bezala, oraingoan euskarazkoen artean saria merezi zuena bat baino ez zen izan, jaialdiari buruzko argitalpenean euskarazko poesia honi egindako sarrerak dioenez: “No hubo más de un Romance bueno en басcuence, y no me espanto, que es propio de esta lengua faltar en Romance” (Mitxelena eta Sarasola, 1990: 119). *Romance*, gorago esan bezala, bi adieretan ulertu beharra dago: linguistikoa eta metriko-literarioan (gerora Mikoletak *vascuence* hitzarekin egin zuen bezala), dialogia kontzeptistari esker. Ez dezagun ahaz, oster, aipu hori biltzen duen liburua Juan de Idiaquezi eskainia dela (Pérez Goyena, 1949 2: 74), eta ez nolahi, urte berorretan Alonso Idiaquez haren semea Nafarroako erregeorde izendatu baitzuten. Gogoan izan zuen Luis de Morales argitalpenaren arduradunak Juan de Idiaquezek Garibay babestu zuela? Behar bada horregatik egin zion euskarazko poesiari aipatu dugun sarreratxoa, erdi txantxetan erdi benetan, Marquez Torres lizentziatuak *On Kixoteren* bigarren parteko aprobazioan adierazten zuenez (“el día de hoy no se lisonjea a quien no tiene con qué cebar el pico del adulador que, aunque afectuosa y falsamente dice de burlas, pretende ser remunerado de veras”, Cervantes, 1980: 569 eta Sieber, 1998: 85). Biolentzia sinbolikoa lausengua bilakatua izango litzateke Moralesen hitzetan, XVII. mende amaieran Sor Juana Ines de la Cruzen kasuan bezala bere idazlanen bigarren liburukia Juan de Orue y Arbietori eskaini zionean (ikus, gorago, 24 oh.).

Dena den, Iruñeko jaialdietatik gogoan hartzekoa da apezpikuaren ekimena. Poesia lehiaketa eta antzerki lan baten antzezpena ekitaldien parte egin zituenean, Bernardo de Sandoval y Rojasek Madrilen egindakoaren eredura jokatzeko ari zen. Sandoval y Rojas Toledoko artzapezkipiku eta Lermakoaren ahaidea izan zen Madrileko idazleak erakarten zituen Hermandad y Congregación de Indignos Esclavos del Santísimo Sacramento

haren fundatzailea. Zoritxarrez, ez dirudi Venegas de Figueroaren ekime-nak jarraitzailerik izan zuenik, ez eta laster Iruñeko apezkipu izango zen Prudencio de Sandovalen aldetik, berau ere Lermakoaren ahaide izan arren. Apezpikuak dotrinen itzulpenak bultzatzera makurtuago ikusten ditugu, eta ez horrenbeste ekitaldi poetikoetara. Elizaren babespean sorturiko poesiak sorta bakan batzuk baino ez dira: Juan de Huartek Erronkariko Andre Mariari egindakoak (Mitxelena eta Sarasola, 1990: 125) eta Nicolas de Zubiaren *Doctrina Christiana* liburuan bilduriko gabon koplak (Mitxelena eta Sarasola, 1990: 138-139). Ezagutzen ditugunak baino gehiago ere izango ziren, baina bilantzikoaren loraldirako XVIII. mendera itxaron behar dela dirudi. XVI eta XVII. mendeetan duguna ezer gutxi da elizgizon euskaldun penintsula-rrek gaztelaniaz eta latinez idatzitako lan multzo ugariaren aldean (ikus Azurmendi, 1985: 362-368). Lan horiek, ostera, letren alorrekoak dira baina poesiatik urrun daude: filosofia, teologia, moralak edo denetatik zerbait dute mintzagai.

4. ONDORIO GISA

Esku artean erabili ditugun lanen kopurua oso urria bada ere, ondorio-ren bat ateratzeko unea da, urritasun horrexegatik beragatik behin-behineko ondorioa ezinbestean. Mende t'erdiko epea gogoan hartuta Euskal Herri Penintsularreko literaturak eta bereziki poesiak izandako bilakabidearen irudikapen bat agertu zaigu. Bourdieuren planteamentuaren arabera, unez une alor literarioan diren posizio edo tokietatik zeintzutan kokatu duen idazleak bere burua eta teorikoki diren aukeretatik zeintzuk gauzatu dituen aztertu ondoren soilik zehaztu daiteke idazle baten produkzioaren bilakabidea. Bourdieuk proposaturiko metodologia gure egingo dugu XVI eta XVII. mendeetako euskarako poesiaren bilakabidearen ildo nagusiak irudikatzeko, hark idazleen biografiaz dioena euskal literaturaren produkziara ekarrita. Hona hemen Bourdieuren azalpena:

El análisis biográfico comprendido de este modo puede conducir a los principios de la evolución de la obra en el transcurso del tiempo: en efecto, las sanciones positivas o negativas, éxitos o fracasos, estímulos o advertencias, consagración o exclusión, a través de los cuales se manifiesta a cada escritor (etc.) –y al conjunto de sus competidores– la verdad objetiva de la posición y de su devenir probable, son sin duda una de las mediaciones a través de las cuales se impone la redefinición incesante del “proyecto creador”, ya que el fracaso propicia la reconversión o la retirada del campo mientras que la consagración refuerza y libera las ambiciones iniciales.

[...] La definición social de lo que le está permitido a alguien, de lo que razonablemente se puede permitir sin ser tachado de pretencioso o de insensato, se afirma a través de todo tipo de licencias y de exigencias, de llamadas al orden positivas o negativas (nobleza obliga), que pueden ser públicas, oficiales, como todas las formas de *nominaciones* o de veredictos garantizados por el Estado, o por el contrario oficiosas, incluso tácitas y casi imperceptibles. Es sabido que, por mediación del efecto propiamente mágico de la consagración o de la estigmatización, los veredictos de las instituciones de autoridad tienden a producir su propia verificación (Bourdieu, 1995: 386-387).

Irizpide horren arabera, euskarazko poesiak alor literarioaren autoritateen biolentzia sinbolikoa, zigorra, behin eta berriro pairatu duela ikusi dugu (edo kasurik onenean kondeszendentsiazko tratua), alegia estigmatizazioa bilatu duen epaia eten gabe. Salbuespena Mikoletaren poesiari buruzko ataltxoak izan liteke, baina konsagraziorako bat ere eraginik gabekoa, mende luzez argitaratu gabe eta atzerrian izateaz gain, alor literarioan bazter-bazterreko tokian (defendatzen duen poesiarena bezain bazterrekoan) dagoen norbaitengandik datorrenez gero.

Gogoan hartu beharrekoa da alor literarioan autoritatearen posizio edo tokiak, lehenagotik konsagratuta daudenak, gaztelaniazko idazleak direla. Izan ere, alor literario espainiarrean jokatzeko hasiak ziren poeta eta idazle euskaldunak, Monarkia Hispanikoaren atal ugarietan jokatzeko hasiak ziren bezala monarkiaren gobernuaren beraren borondatez. Alorrerako sarrera ez zen nonbait ohargabe pasatu, poesiari buruzko definizioek (euskarazko poesia "cantar vizcaino" den ala besterik den) adierazi digutenez. Definizio saio horiek generoaren mugak ezartzeko lehiaren adierazle dira:

Definir las fronteras, defenderlas, controlar las entradas, significa defender el orden establecido en el campo. En efecto, el incremento del volumen de la población de los productores es una de las vías principales a través de las cuales los cambios externos afectan a las relaciones de fuerza en el seno del campo. [...] Producir efectos en él, aunque sean meras reacciones de resistencia o de exclusión, ya es existir en el campo (Bourdieu, 1995: 334).

Carlos Gutierrezek XVI. mende amaieran ikusi du lehen alor literario espainiarraren sorrera. Gutierrezen proposamena onartuz gero, alor literario horretan konsagratuta zeudenen erreakzioa, idazle euskaldunen presentzia nabaritu ondoren, kontrakoa izan zela agerian gelditu da. Izan ere, Garibay bezalako batzuk alorreko posizio indartsuak bereganatzeko borondateaz jokatzeko ari ziren. Garibayren anbizioak Juan de Idiaquez bezalako patroik baten babesarekin lor zezakeena alorrean lehenagotik jokatzeko ari zirenak ikaratzeko modukoa izan zitekeen: Garibayk errege kronista izendapena eskuratu zuen, Lope de Vegak ere gutiziatu baina inoiz lortu ez zuena.

Alor literario horretan sartzea, ordea, ez zitzaizkion doainik atera euskaldunei. Alor literario eta artistikoaren ezaugarri omen da kodifikazio maila ahulekoa izatea, joko arau malguak erabiltzea (Bourdieu, 1995: 335) baina hala ere agerikoa da oinarrizko joko araurik izan bazela, horien artean hizkuntza, eta hizkuntza hori gaztelania zen. Hortaz, euskaraz idatziriko lan orok nahitaez alorreko autoritateen gaitzespena ekarri behar zuen, eta horrekin batera alorraren bazterretara zokoratzea. Gaztelaniaz idazten zutenean ere euren idazkera susmagarria zela jakitun ziren euskaldunak (Garibay horren lekuko), orduan ere biolentzia sinbolikoa ohizko erantzuna zelako. Horrek ez zuen eragotzi historiografian eta hemen gogoan izan ez dugun literatura iuridikoan egindako jokaldi batzuen arrakasta. Nekezagoa izan zen, dirudienez, alorreko genero nagusietan euskarazko produkzio idatzia birizik mantentzea, poesia-aren ibilbideak erakutsi digunez.

Literatuaren alorrak boterearen alorrearekiko autonomia gradu ezberdina erakutsi ditzake toki eta garaien arabera. Autonomia graduirik handiena XIX. mende amaierako literaturak lortu zuen Frantzia, Bourdieuren ustez. Erregimen zaharrari dagokion egoerarik ohizkoena, ostera, boterearen alorrearekiko heteronomia edo menpekotasuna da, nahiz eta literatur tradizio sendoak dituzten tokietan autonomiaren aldeko saioak agertzen hasiko diren. Heteronomiaren egoera menpekotasunezkoa da produkzio eskaeraren arabera delako:

[...] la heteronomía, en efecto, surge gracias a la demanda, que puede adquirir las formas del encargo personalizado formulado por un “patrón”, mecenas o cliente, o de la expectativa y la sanción anónimas de un mercado (Bourdieu, 1995: 323).

Heteronomiarako baldintzak horiek badira, Euskal Herri Penintsularreko literatura idatziari baldintza biek huts egin zioten XVI eta XVII. mendeetan. Euskal Herri Kontinentalean, edo Lapurdin behintzat, bazen euskaraz irakurtzen trebaturiko populazio talde eraginkor bat (ikus Oihartzabal, 2001), gure artean ez bezala. Hemen alfabetatu gabekoen kopurua handiagoa omen zen eta alfabetatuek gaztelania zuten irakur trebetasunerako lehen hizkuntza. Beraz, nekez etorriko zen euskarazko literatura idatziaren eskaera alde horretatik.

Mezenasgoari dagokionez ere, ahulezia nabarmena bizi zuen euskal literatura penintsular idatziak. Lurraldeetako erakundeak uzkur jotzen ikusi ditugu poesiaren sorkuntza bultzatzeko orduan, eta zerbait egin izan dutenean ere unean uneko arrazoi politiko hutsengatik egin dute (monarkiarekiko atximendua erakusteko edota iritzi publikoa erakartzeko) baina ez idazleren baten bizimodu baldintzak errazteko idazteari ekin diezaion oztoporik gabe. Erakundeon ahaleginak eremu historiko-iuridikora eta literatura apologetikora bideratuago dirudite: sarritan gogoratu izan da, esate baterako, Martínez de Zaldivia batxilerra eta Poza lizentziatua Gipuzkoako eta Bilkaiko lurralde erakundeetako hurbileko edota soldatapeko izan zirela (Floristan, 2007: 159). Monarkiaren gobernu bera ere nozbait eragile izan da, baina hori ere unean uneko interes politikoak bultzatuta eta beraren aldeko iritzi publikoa sortzeko asmoz soilik. Erakunde akademikoei loturiko eragile bakanen batek ere euskarazko poesiari egin duenean euskaldunen monarkiarekiko atximendua eta leialtasuna erakusteko egin du. Eliza katolikoarekiko eta beraz ordena sinbolikoarekiko atximendua erakustalditzat ere jo daitezke 1609 eta 1610 urteetan lruñeko apezpikuak antolaturiko lehiaketetatik sortutakoak.

Literaturaren mutur autonomotik hurbilago egon litezke Lazarragaren lanak eta Bizkaierazko maitasun poesia, baina horietan ere mezenasgoak eraginen bat izan zuela ontzat ematea ez da gehiegikeria. Izan ere, Lazarragaren kasurako Pruden Gartzia Gebara leinu handiaren gordea ezinbesteko giroa zela proposatu du, leinu horretako buru zen Oinatiko kondeak Madrilera irakurtearen zuzenbidea berria aldatu baino lehen (Gartzia, 2005: 35 eta 2009: 125). Gartzia hipotesia baietsiz gero, Gebara familia XVI. mendeko babeslerik garrantzitsua izan liteke handikien artean.

Hortik kanpo, eta Idiaquezek Garibayri eskainitako babesa alde batera utzita, ez dago euskarazko literaturaren mezenas edo patroï gisa jokatu nahi izan zuen ahaide nagusi edo merkatariren berririk. Alderantziz, gizarte eliteek gero eta egokituago aurkituko dituzte euren buruak Monarkiaren egituretan eta horrekin batera euren interesak Euskal Herritik gero eta hurrunago izango dira. Gizarte mailaketan gora egin nahi bada gizarte arauak eta gizarte horren oinarri den ordena sinbolikoa bera onartzea eta norberegantzea ezinbestekoa da. Zenbat eta gorago, orduan eta integratuago Gaztelako gizartean, eta orduan eta aukera gutxiago euskarazko produkzioa babesteko. Bizkaierazko maitasun poesiari dagokionez, ilunak dira oraindik mezenasgoarekin izan ditzakeen loturak. Agian genero horretako poema multzoa sakabanaturik heldu izana eta batez ere Mikoleta eta Oihenart bezalako poesiazaleek zeinek bere poetiketan bildu izana alor literarioaren mutur autonomotiko hurbiltasunaren aldeko frogak izan litezke, mutur horri baitagozkio bereziki literarioak diren kezkak (Bourdieu, 1995: 323).

Joera dugu Euskal Herri Penintsularreko euskal literaturaren emaitzak Euskal Herri Kontinentalekoekin eta Espainiakoekin konparatzeko sarritan gogoan izan gabe literatura gizarte egoera berezien ondorio dela eta toki batetik bestera gizarte egoeren artean dagoen aldea ikaragarri handia izan litekeela. Literaturaren emaitzak eta lorpenak konparatzen hasi aurretik, edo horrekin batera behintzat, testuinguruei ere arreta handiz begiratu behar genieke. Lan idatziek eskatzen zuten irakurle talde sendo baten gabeziari eta mezenasgo erkin baten eraginpean izateari, etengabeko biolentzia sinbolikoaren pairakuntza gehitzen badiegu, behar bada hobeto ulertzen hasiak gara zergatik izan zen XVI eta XVII. mendeetako euskal literatura eta poesia idatzia izan zen bezalakoa Euskal Herri Penintsularrean.

5. LAN AIPATUAK

- APRAIZ, Julian de. *Cervantes, vascófilo*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2005.
- AREJITA, Adolfo. "Domingo Heguiari kantua. Textoa eta lexikoa". In: *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 4, 1988; 7-51.
- . "Idatzizko eta ahozko tradizioa gaur egungoari buruz". In: *Euskera*, 50, 2005; 465-506.
- ARELLANO, Ignacio. "Problemas en la edición y anotación de las crónicas de Indias". In: ARELLANO, Ignacio; RODRIGUEZ GARRIDO, Jose A. (arg.). *Edición y anotación de textos coloniales hispanoamericanos*, Frankfurt am Main eta Madril: Vervuert eta Iberoamericana, 1999; 45-74.
- AROCENA, Fausto. "Isasi Idiáquez, Juan de". In: *Bernardo Estornés Lasa - Auñamendi Entziklopedia*, <http://www.euskomedia.org/aunamendi/70608?&op=4&primR=1&egs=10&EIKVOVOZ=isasi%20idiaquez&pos=8&idi=eu>. Kontsulta data: 2009-07-02.
- ARRIOLABENGOA, Julen. *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan. Testu zaharren edizio-rako kontribuzioa*. Bilbo: Euskaltzaindia eta BBK Fundazioa, 2008.
- AZURMENDI, Joxe. "Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian". In: INTXAUSTI, Joseba (zuz.). *Euskal Herria. Historia eta Gizartea*. Arantzazu: Jakin, 1. liburukia, 1985; 362-386.

- . *Espainolak eta euskaldunak*. Donostia: Elkarlanean, 2000.
- BIJUESCA, K. Josu. “Aránzazu y sor Juana. Hacia una interpretación global del final de los Villancicos de la Asunción de 1685”. In: *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 7, 1999; 155-175.
- . “Fragmentos de poesía vasca en la literatura española de los Siglos de Oro: reescritura y manipulación”. In: *Oihenart*, 21. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2006; 61-72.
- . “Mikoleta, euskal poesiaren monumentalizazioan aintzindari”. In: *Bidebarrieta*, 19, 2008; 11-24.
- BOURDIEU, Pierre. *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*. Barcelona: Anagrama, 1995.
- . *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid: Akal, 1999.
- . *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Barcelona: Anagrama, 2007.
- CARO BAROJA, Julio. *Los vascos y la historia a través de Garibay*. Madrid: Caro Raggio, 2002.
- CERVANTES, Miguel de. *Don Quijote de la Mancha*. RÍQUER, Martín de (arg.). Barcelona: Planeta, 1980.
- CLARE, Lucien. “Una poesía vasca compuesta con ocasión del nacimiento del príncipe Felipe Próspero (1657) y publicada por la Universidad de Salamanca en 1658”. In: *Fontes Linguae Vasconum*, 18, 1974; 397-449.
- COVARRUBIAS, Sebastián de. *Tesoro de la lengua castellana o española*. ARELLANO, Ignacio; ZAFRA, Rafael (arg.). Madrid: Iberoamericana, 2007.
- CROSBY, James O. “Quevedo, Lope and the royal wedding of 1615”. In: *Modern Language Quarterly*, 17, 1956; 104-110.
- DÍAZ NOCI, Javier. “Fuentes históricas coetáneas de la liberación de Hondarribia: La construcción de un acontecimiento en la España de Olivares”. In: *Mediatika*, 10. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2004; 77-107.
- ECHAVE, Balthasar de. *Discursos de la antigüedad de la lengua cantabra bascongada*. Mexiko Hiria: Henrico Martínez, 1607.
- ELLIOTT, John H. *España y su mundo (1500-1700)*. Madrid: Taurus, 2007.
- ENCISO, Isabel. “Nobleza y mecenazgo en la época de Cervantes”. In: *Anales cervantinos*, 40, 2008; 47-61.
- ESARTE, Pedro. *Asedio a Fuenterrabia y avasallamiento de Guipúzcoa (1635-1644)*. Iruñea: Pamiela, 2005.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, Emiliano. “Bilbao en la Edad Moderna”. In: TUSSELL, Javier (arg.). *Bilbao a través de su historia*. Bilbo: Fundación BBVA, 2004.
- FEROS, Antonio. *El duque de Lerma: realeza y privanza en la España de Felipe III*. Madrid: Marcial Pons, 2002.
- FLORISTAN, Alfredo. “Vascos y navarros en la monarquía española del siglo XVI”. In: BURGO, Jaime Ignacio del (koord.). *Vascos y navarros en la historia de España*. Iruñea: Laocoonte, 2007; 135-175.
- FUMAROLI, Marc. *L'âge de l'éloquence*. Geneva: Droz, 2002.

- GARCÍA ORO, José; PORTELA SILVA, M^a José. *La monarquía y los libros en el Siglo de Oro*. Alcalá de Henares: Universidad de Alcalá, 1999.
- GARIBAY Y ZAMALLOA, Esteban de. *Los Quarenta Libros del Compendio Historial de las Chronicas y Universal Historia de todos los Reynos de España*, 2. arg. Bartzelona: Sebastián de Cormellas, 1628.
- . *Memorias de Garibay*. In: REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA (arg.). *Memorial histórico español*. Madril: Imprenta de José Rodríguez, 7. Liburukia. 1854; 1-626.
- . *Discurso de mi vida*, MOYA, Jesus (arg.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1999.
- . «Los siete libros de la progenie y parentela de Estevan de Garibay». ACHON, Jose Angel (zuz.). Arrasate: Arrasateko Udala, 2000.
- GARTZIA, Pruden. *Lazarraga. Errenazimentua euskaraz*. Iruñea: Pamiela, 2005.
- . “Zazpi gauza jakin beharrekoak Lazarragari buruz”. In: *Jakin*, 170, 2009; 109-129.
- GUTIERREZ, Carlos M. *La espada, el rayo y la pluma. Quevedo y los campos literario y de poder*. West Lafayette. Indiana: Purdue University Press, 2005.
- HERRERO GARCÍA, Miguel. *Ideas de los españoles del siglo XVII*. Madril: Gredos, 1966.
- IGLESIAS OVEJERO, Angel. “Figuración proverbial y nivelación en los nombres propios del refranero antiguo: figuras vulgarizadas del registro culto”. In: *Criticón*, 28, 1984; 5-91.
- KAGAN, Richard L. “Clio and the crown: writing history in Habsburg Spain”. In: KAGAN, Richard L.; PARKER, Geoffrey (arg.). *Spain, Europe and the Atlantic world. Essays in honour of John H. Elliot*. Cambridge: Cambridge University Press, 1995; 73-99.
- LAKARRA, Joseba A. “Bertso bizkaitarrak (1688)”. In: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 18/2, 1984; 89-184.
- . “Epílogo (1989)”. In: MITXELENA, Koldo; SARASOLA, Ibon. *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990; 353-362.
- . *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1996.
- LEGARDA, Anselmo de. *Lo vizcaíno en la literatura castellana*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1953.
- LORENZO, Javier. “Poética e ideología: la aristocratización del endecasílabo en la «Carta a la Duquesa de Soma»”. In: *Hispanic Review*, 73, 2005; 25-40.
- MAÑARICUA, Andrés E. de. *Polémica sobre Vizcaya en el siglo XVII. El Buho Gallego y El Tordo Vizcayno*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.
- MARAVALL, José Antonio. *La cultura del Barroco*. Bartzelona: Ariel, 1996.
- MERINO JEREZ, Luis. “El Brocense y Juan de Mal Lara: una amistad inexplorada”. In: *Revista de Estudios Latinos*, 2, 2002; 149-168.
- MICOLETA, Rafael de. *Modo breve de aprender la lengua vizcaina*. Bilbo: 1653 (eskuizkribuaren fotokopia, Deustuko Unibertsitatearen Euskal Gaien liburutegikoa).
- . *Era Ilaburra*. ZELAIETA, Angel (arg.). Bilbo: AEK, 1995.

- MITXELENA, Koldo; SARASOLA, Ibon. *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990.
- MORENO, Pedro. "Ascendencia y descendencia de D. Juan de Isasi Idiáquez, I Conde de Pie de Concha". In: *Hidalguía*, 45, 2008; 469-517.
- MOYA, Jesus. *Esteban de Garibay. Un guipuzcoano en la corte del rey Felipe*, Villarcayo. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 2000.
- OIHARTZABAL, Beñat. "Statut et évolution des lettres basques durant les XVII^{ème} et XVIII^{ème} siècles". In: http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/06/81/45/PDF/Statut_evolution_lettres_basques_XVIIe_XVIIIe_siecles.pdf (*Lapurdum*, 6, 2001; 219-287).
- OTAZU, Alfonso de. *El "igualitarismo" vasco: mito y realidad*. Donostia: Txertoa, 1973.
- ; DIAZ DE DURANA, Jose R. *El espíritu emprendedor de los vascos*. Madril: Silex, 2008.
- PERCEVAL, José M^a. *Opinión pública y publicidad (siglo XVII). Nacimiento de los espacios de comunicación pública en torno a las bodas reales de 1615 entre Borbones y Habsburgo*. (Doktoradutza tesia). Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 2004. 4 liburuki. <http://www.tdx.cesca.es/TDX-1124104-171942/>.
- PÉREZ GOYENA, Antonio. *Ensayo de bibliografía navarra*. Iruñea: Diputación Foral de Navarra, CSIC, Institución "Príncipe de Viana", 2. liburukia, 1949.
- QUEVEDO, Francisco de. *Epistolario completo*. Astrana Marín, Luis (arg.). Madril: Instituto Editorial Reus, 1946.
- RODRÍGUEZ-SAN PEDRO, Luis E. "La «nación de Vizcaya» en las Universidades de Castilla ss. XVI-XVIII". In: *Revista de Historia Moderna. Anales de la Universidad de Alicante*, 20, 2002; 11-46. <http://publicaciones.ua.es/filespubli/pdf/02125862RD19298789.pdf>.
- SALAS BARBADILLO, Alonso Jeronimo de. *La hija de Celestina*. Zaragoza: Viuda de Lucas Sanchez, 1612.
- SIEBER, Harry. "The Magnificent Fountain: Literary Patronage in the Court of Philip III". In: *Cervantes: Bulletin of the Cervantes Society of America*, 18.2, 1998; 85-116.
- URGELL, Blanca. "Egiaren kantaz: I. Testua eta iruzkinak". In: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 20/1, 1986; 75-148.
- URQUIJO, Julio de. *El refranero vasco. Tomo I: Los refranes de Garibay*. Donostia: Imprenta de Martín, Mena y Compañía, 1919.
- URQUIZU, Patricio (zuz.). *Historia de la literatura vasca*. Madril: UNED, 2000.
- URRUTIA, Andres (zuz.). *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877*. Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2003.
- VEGA, Lope de. "Comedia famosa de los ramilletes de Madrid". In: VEGA, Lope de. *Onzena parte de las comedias de Lope de Vega Carpio*. Madril: Viuda de Alonso Martin de Balboa, 1618; 51 atz. – 74 aur.
- ZUBIAUR, Jose R.; ARZAMENDI, Jesus. "El léxico vasco en los refranes de Garibay". In: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 10, 1976; 47-144.